

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XVIII Zenbakia.

1992

Urtarrilla-Epailla

AURKIBIDEA

	Orr.
Etxeko goraberak.- (Barruko azalean).	
Bizkaierak bizirik irautea bai ote?- Oñatibia'tar M.	1
Bizkaieraren etorkizuna	6
Euskerazaintzaren lan sailletan.- Olazar'tar M.	7
871'n Araba'ko larruki bat.- Latiegi'tar B.	11
Tene Idazle ta Deba'ko Ikastola.- Arrinda'tar A.	18
Aratuzteen deiturak.- Zubikarai'tar A.	24
Gaztañaga ren oroiz.- Augustin.	31
Adiskide baten aolkuak..	32
Eriotza ta ilketak.....	33
Gaztañaga'tar Jesus.	34
Goi yakintzaruntz.- Urrestarazu A	35
Umandiren Euskal Elíztia.- Onaindia'tar S.	38
Euzkerari buruz azpegi berezia.- Urrestarazu'tar A	43
Erderakadak eta akatsak.- Gaztañaga eta taldeak.	45
Esaldi jatorrak.- Oñatibia'tar M.	49
Santurtze ala Santurtzi?.- Etxaburu'tar J.M.	52
Erria eta gu.- Galde erantzunak	56
Liburuak.	61
J.M. Barandiaran.- (Barruko azalean).	
Salatzen dugu. (Azalean).	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

ETXEKO GORABERAK

EUSKERAZAINTZA'ko Araudiak agintzen duana beteaz, Gabonjlla'ko batzarrean egin zan Akesolo tar Ljino (G.B.) lendakaria zanaren ordezkoaren aukeratzea.

Alkar-arteko goraberak azaldu ondoren, eta kontuan eukita Idazkari eta Diru-za;ña ora;ntsu aukeratuak zirala, Lendakaria eta Lendakarj ordekoa aukeratzea erabaki zan, besteak lengo zeregiñetan jarraituaz.

Orrela, onek d;ra jarraiko urte bietan EUSKERAZAINTZA'en ardura eta zuzendaritza eramango duten jaunak:

Lendakari: Olazar dar Martin.

Lendakari orde: Zubjkarai tar Augustin.

Idazkari: Oñatibia tar Manu.

Djru-zain: Kortajarena tar Andoni.

Bere denboraldirako elburu bat urrengo batzarrerako ekarrj ta agertzekotan geratu zan lendakari berria.

Batzar aretan erabaki zan EUSKERAZAINTZA'ren batzarrei taldeko otoitz batekin asiera ematea eta ortarako otojtz au onartu zan:

Batzarretarako otoitza

Jaungoiko gure A;ta,
munduaren eta gizartearen sortzaillea:
Gure erriaganako maitasunak alkartu gaitu
eta erri onetan jzkuntza dogu gure lanen elburu.
Emoiguzu zure laguntza ta argjtasuna,
egin bear dogun lan aundi ta onuragarri au
zeatz, sendo eta egokiro egin daigun.
Orrelan, zuk sortutako Euskalerrria
zurea dan gjzarte osoaren onerako bizi daiten.
Jesuskristo gure Jaunaren bjrtartez, Amen.

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition, Bilbao



BIZKAIERAK BIZIRIK IRAUTERIK BAI OTE?

EUSKERAZAIÑTZA'ren elburua, erri-euskera zaintzea da eta bere sorreratik, —artarako sortu zan eta—, azken urte auetan sortu dan giro ulerteziñagatik, lau euskera nagusiak, baiña batez ere bizkaierak jasan bear izan duan eta duten burruka bizla dala eta, kezka larrian bizi da.

Batuaren errudunjk aundienetakoa dan Mitxelena'tar Koldo'k aspaldi esan zuan, batasun-burruka ontan galtzaillérik aundiena bizkaiera izango zala.

Urteak aurrera dijoazten eran, Euskerazaintza'koak ez diran bizkaiera-maitale asko ere, Jaurlaritza, alderdi politiko eta beste erakunde askoren jokaera ikusiz, kezkatzen asiak ditugu.

Arrigarria ba'da ere, —eta bizkaitarrak ere beren alegintxoak egin arren—, bizkaitarrak ez dñran batzuk ikusten ditugu, bizkaiera leiza-zuloan amiltzera doala ikusirik, eskua luzatu nairik.

Oyotako bat, Deustu'ko Ikastetxe Ñagusian irakasle dan Pagola'tar Rose Miren da. Berak bultzata, ikasleku ospetsu orren Areto Ñagusian, "Bizkaieraren gaurko egoera" izenburua artuaz, mai-inguru bizi bat eratu da.

Aretoa lepoz-gain beterik zegola, bi ordu terdiko izketaldiak entzuteko egokiera izan nuan. Mai-inguruan zeudenen itzak agertuko ditut lendabizi, entzuleenak gero, azkenenean nere iritzia azalduaz.

MAIKOEN IRITZIAK

Lakarra tar Joseba

Lendabizi, Lakarra'tar Joseba'k itz egin zuan eta berak zionez, "Larramendi, Añibarro ta Bonaparte'k euskalkien artean bizkaierari leku bat aitortzen diote eta Lakonbe'k berriz, bizkaiera alde batean eta beste euskalki danak alboan jartzen ditu". Bere kontuetan, "bizkaiera euskalki bat da; berezitasunak ba-ditu, baiña beste euskalkiekin lotura aundiak ditu eta era oso ortan bakarrik ar daiteke". Beste aldi batean ala zion: "Bizkaieraren etorkizunak ez dit batere ajola, euskerarenak baizik. Bizkaieraren egoera jlluna da".

Irigoyen dar Alpontxo

Irigoyen'dar Alpontxo'k ondoren, ala zion: "Batuak ez du inondik ere bizkaieraren aurka joan bear; euskera biziko ba'da, euskalkiak bizi diralako izango da". Eta beste aldi batean: "Bizkaiera iltzen ba'da, besteak ere gaizki ibilliko dira. Euskera batua ez da biziko, euskalkiak bizi ez ba'dira". Eta geroxeago, "Suiza'n aurrak, amar-amaika urte arte, bertako alemaneran ezitzen dira eta gero asten dira bestea ikasten. Emen planteamenduak gaizki egiñak daudela, aspaldi esanaz nator".

Muniategi tar Abel

Muniategi'tar Abel'ek Bizkai'ko Aldundiko lege-gizon bezela itz egin zuan eta zuanez, "legeak euskeraren nortasuna rekonozitzen dau; ez bizkaierarik. Lurralde autonomoak Bizkai'ko egunkari ofizialean batez be ataraten ditu bere erabaki ta etekiñak; ba, ez da ezer be bizkaieraz. Aldundiko bere gauzetan ez da bizkaierazko ezer nabari. Bere prozedura edo jardun-bideetan ez du bizkaiera erabiltzen. Batzar Nagusiak bere jardunbide ta bizitza administratiboan, bizkaieraz emoten dau. Bizkai'ko egunkari ofiziala lekuko dogula, argi ta garbi esan bear da, Bizkai-Aldundian bizkaierak ez daula leku formalik. Salbuespen bat da Bermio". Eta beste aldi batean: "Euskeraren etorkizuna ez dot ain garbi ikusten, baiña bizkaierarena, batez be premisak orain bezala jarduten ba'dabe aurrerantz, nik uste, illuna dala. Ez dot uste boluntarismo utsean egon ditekenik".

Berriozabal dar Erroman

Berriozabal'dar Erroman, Jaurlaritzaren izenean jardun zan eta onela mintzatu zan: "Euskal autonomi alkarte osoa eta bide berean, lekuan-lekuko gizarte ta ingurunea gogoan izanik, normalizazio plan osoa eraterakoan, zentzuzko orekagunea eta geiengoentzako urtenbidearen aldekoa da Idazkaritza eta egin bere, ortik egin dau bere apostua". "Lekuan-lekurako neurriko trajea bearrean aurkitzen gara. Elburua, elburu nagusia beti bere, bertakoen izkuntza normalizazioa dalarik. Bi dira, guzti onen argitan, egin bearrekoak: Bizkaierari erabillera erraz eta bizia segurtatu bizirik dirauen lekuetan, orretarako bear diran ekintza ta funtzioak sortu ta indartu; bestetik, euskera batua erakutsi egin bear da. Ez deritxat zuzen, euskara batua euskalkiak kontra jartzeari. Batak ez du bestea ukatzen; ez dira batera-eziñak. Ez deritxagu zuzen, euskara batua bizkaieraren iltzaile moduz azaltzeari". Eta beste aldi batean: "Transizio ezkerotzik, milla gauza egin dira. Batzuen iritziz, presaka eta egia esan, oker asko egin dira, baiña oker oyek zuzentzen asteko garaian gaudela esango nuke. Bizkaiera prestijiatu ta aurrera ekin bear da".

Urruburu tar Laura

Urruburu andereiñoa, Busturia-aldea ta Lea-Artibai inguruan, erri-eskoletako ta ikastoletako begirale bezela ikasitakoak adierazi zitun. "Ikastolarik geienak

batu-bidea artu dabe; gutxi batzuk bizkaiera-bidea. Iru urtekin sartzen diran aurrei batuan itz egitea beartzen dituzte". Irakasleen jarrera dala-ta, "eretxi pedagogikoetan baiño, geienetan, eretxi ideolojiko eta politikoetan oiñarrituak egoten dira, oso politizaturik daudelako: PN V atzerakoia, HB aurrerakoia. Legeak ez ditu jaso bizkaieraz itz egiten dabenen eskubideak eta betebeurrak; umeak etxetik datozenean, bizkaieraz itz egiten dabe. Irratia, telebista, egunkariak batuan dabezalako, bizkaiera erabat bastertua gelditzen da. Aurren izkuntza dala eta: "Darabilen euskara, erritasunik bakoa da; esaldi soillak egiten dabez. Baserriko umeak kalekoak baiño askoz obeki itz egiten dabe. Kalekoek izketa oso pobretua dabe; subordinaziñorik gutxi erabilten dira; sintaxia aldeko akatsak; aditza da gutxien menperatzen daben arloa; naste ikaragarriak ikusten dira; sustituziñoak eta diferentziak egiten dira. Gauza bera gertatzen da lexikoan: sakatu, ez, bultzatu; jausi ez, erori; ostu ez, lapurtu; eroan ez, eraman, e.a. Debekatuak daudela dirudi". Eta beste tarte batean: "Gizarte osoaren sensibilizaziñoa egin bear da eta batua edo euskara bizitzeko, bizkaierak ere beste euskalkien moduan bear dau".

Etxebarria tar Igone

Etxebarria'tar Igone EITB'ko euskera-jokaeraz jardun zan. Eta ondoren, bizkaieraren egoera nola ikusten zuan galderari ala erantzun zuan: "Gauzak aldatzen ez ba'dira, beste bide batzuk artu eta beste arlo batzuetara zabaldu ta euskara batuan eragiñik egiten ez ba'da, oso etorkizun txarra dau".

ENTZULEEN IRITZIAK

Latiegi tar Bixente

Mai-inguruan zeudenen izketaldiak amaitu ondoren, entzuleei, beren iritziak agertzeko egokiera eman zien. Latiegi'tar Bixente izan zan itza eskatu zuana eta auxe esan zuan: "Bizkaiera arrixku aundian dago ta bizkaiera galtzen ba'da, Bizkaia ez da sekula Bizkaia izango; Guadalajara edo ba'diteke izatea. Sartu nai diguten batasuna ez da euskalduna; española da: gaztelearen batasuna da. Euskera gerkeraren antzekoa da. Aurak ikasteko, irrati ta telebistan, gipuzkeraz eta bizkaieraz, bietara itz egin bear da; berealaxe ikasiko dute". Beste jardun aldian, ala zion: "Nik Grezi'ko izkuntza aipatu dut eta Grezi'n batu bat sortu zala, baiña indarkeririk gabe ta batu ori sortu zanean, Grezia'k izan zuan literaturarako ta filosofiarako gaitasun guztia, ezabaturik gelditu zan".

Aurre tar Anton

Aurre'tar Anton izan zan urrengoa. Zerbait geiago esango zuan, baiña galdera eran jardutera beartu zutenean, bere sua asko moteldu zan. Ala ere galdera auek egin zitun: "Zelan ikusten dozue, etxean bizkaieraz itz egiten dauan iru urteko ume errukarri orri batuan egiten beartzea? Batua ez da bizkaieraren arerioa diozute; zelan ikusten dozue zuek, sistematikamente artuten diran itzak, bizkaierakoak ez diranak, batuan erabiltzen diranak; ori,

bizkaieraren edo euskaldi baten aurka joatea ez da? Eta joskerari buruz zer? An emen euskera batuan ikusten dogun euskera baldarra? Ardularitzako adierazpenak, legeak, bere agInduak eta bere gauza guztiak erri-agintzarako egiten dituz eta erri orrek egiten dauan euskeran emoten ez ba-yakoz, zer deritxozue zuek orri buruz?".

Arejita tar Adolfo

Arejita'tar Adolfo'k, onela itz egin zuan: "Euskera batuak afektibitate mailla sikolojikoan eragin aundia dau. Etxean bizkaieraz egiten dauan seigarren maillako neskato batek ikastolan besteekin urteetan ez du berbarik egin. Pobretu dan izkuntza dd. Normalean konplejoak egiten dira; ez dabe espontaneidaderik; bat-batekotasunik bage berba egiten dabe umeek. Beraz, batuak eragin aundia dau irugarren mailla orretan".

Olazar tar Martin

Olazar'tar Martin izan zan ondoren jardundakoa. Ala zion: "Bizkaiera galdu arren, ez diola ajola esan du batek eta ori niretzat mingarria da. Bizkaiera galtzen ba'doa, bizkaitarrek bizkaieraz idazten ez dabelako da".

Oñatibia tar Manu

Nik ere nere iritzia emateko egokiera izan nuan eta galdera eran jardutea beartutakoan, galdera au egin nuan: "Bizkaierak bizirik irauterik bai al du? Nere iritziz, —emen entzundakoa entzun ondoren—, ezetz esango nuke. Gaurko egoera, euskeraren egoera, alor guztietan gaur bezelakoa ba'da, emendik 40-50 urtera bizkaierarik ez da entzungo. Ara nola: Emen esan dan bezela, emengo ikastetxe ta ikastola danetan esan leike, batuan dabilta. Gaur ikastoletan dabiltzan aur oyek ezkondu ta beren seme-alabak azten diranean, etxean ez dute bizkaierarik entzungo. Bestetik, irratian, izparringietan, Aldundietan, Jaurlaritzan, batuan bakarrik entzuten baldin ba'due, bizkaiera emendik berrogei edo geyenez berrogeita amar urtera ill egingo da ta bizkaierarekin batera, euskera".

Lakarra jaunari ez zitzaion ondo iruditu, izkuntza baten iraupenari mugak jartzea eta adibide bezela ala zion: "Humbolt'ek ere esan zuan, 1900 garren urterako etzala euskaldunik izango eta 1991 'an gaude eta euskara oraindik bizirik dago".

Altuna tar Patxi

Mai-ingurua zuzentzen zuan Altuna'tar Patxi'k, euskeraren egoera orain berrogeita amar urte baiño ohea zala ta itxaropentsu agertu nai izan arren, batek eta bestek ziona ausnartu ezkeru, bizkaieraren egoera oso larria dala ikusten da. Adibidez Lakarra'k: "Bizkaieraren egoera illuna da". Irigoyen'dar Alpontxo'k: "Bizkaiera ilten ba'da, besteak ere gaizki ibilliko dira. Euskara batua ez da biziko, euskalkiak bizi ez ba'dira". Muniategitar Abel'ek: "Euskeraren etorkizuna ez dot ain garbi ikusten, baiña bizkaierarena, batez be

premisak orain bezela jarduten ba'dabe aurrerantz, nik uste, illuna dala. Ez dot uste boluntarismo utsean egon ditekunik". Berriozabal'dar Erroman'ek: "Transizio ezkerotik, milla gauza egin dira. Batzuen iritziz, presaka eta egia esan, oker asko egin dira, baiña oker oyek zuzentzen asteko garaian gaudela esango nuke. Bizkaiera prestijiatu ta aurrera ekin bear da". Urruburu andereiñoak: "Gizarte osoaren sensibilizaziñoa egin bear da eta batua edo euskara bizitzeko, bizkaierak ere beste euskalkien moduan bear dau".

Lakarra tar Joseba

Lakarra'tar Joseba'k Humbolt'ek esandakoa adieraziz, azti eta igarleetan uste onik ez duala esan nai zuan, baiña garai artan euskerak zituan arerioak eta giroa oso txarra izan arren, bizkaierak gaur egun jasaten duana baiño milla aldiz tikiagoa zan. Etxeetan eta kaleetan eta neska-mutillak eskola ta ikastoletik at bizkaieraz mintzatzen ziran. Eskoletan erdera utsa erakusten zieten, baiña andik at, bizkaieraz mintzatzeko askatasun osoa zuten. Orain berriz, ikastoletan, dakiten bizkaiera era bat baztertu ta batuan ikasi arazi eta itz egin erazten diete eta ori, bizkaieraren iraupenerako, garai artako jasan bearra baiño askoz aundiagoa da. Orren gain, irriatiak, ikustirriatiak, izparringiak, kinemak, agintarien aginduak eta abar, erabat batuan daudela, Muniategi'tar Abel'ek zionez, "premisak orain bezela jarduten ba'dabe aurrerantz", bizkaieraren iraupena eziña da.

Laburpenak

"Bizkaieraren egoera" taz eglndako izketaldia etorkizunari begira itxaropen aundirik gabekoa izan arren, bertan jaulki ziran iritzi batzuk, gogoan artu ta aurrera eraman ezkeru, oraindik ere bizkaierak bere burua jaso eziñik ez duala esango nuke. Ortarako, Uruburu andereiñoak esan zuan bezela, "gizarte osoaren sensibilizaziñoa egin bear da". Bizkai erri osoari, bizkaieraren egoera larria argi ta garbi adierazi bear zaio. Agintariei eta batez ere Arana'tar Sabin'en jarraitzaile diran alderdi politikoetako buruzagiek, beren betebearra ta ezinbesteko ta garrantzi aundiko ekintza, bizkaiera dagoan zulotik ateratzea dala ozenki esan bear zaie.

Bide batez, bizkaieraren iraupenerako bear-bearrezkoak diran urratsak aztertu ta erabaki ta aurrera eraman bear dira. Izkuntza baten ill-biziko bideak aukeratzea, danen arazoa da, baiña geien-bat, agintariena.

Ni, nere iritzi apalean, ara nundik asiko nintzaken: Lenengo ta bein, Bizkai'ko ikastola ta ikastetxe guztietan, aurrak amaika urte dituzten arte, bizkaiera eta bizkaieraz ikasiko dute. Irratietan eta batez ere Euskal Telebistan, berriak bezela kinemak eta aurkezleak, beste izkelkien parekoa dala adieraziz, "gipuzkeraz eta bizkaieraz, bietara itz egin bear da" Latiegi'tar Bixente'k esan zuan bezela.

Eta bukatzeko, Berriozabal'dar Erroman'ek esandakoa: "Oker asko egin dira, baiña oker oyek zuzentzen asteko garaian gaudela esango nuke. Bizkaiera prestijiatu ta aurrera ekin bear da".

Oñatibia'tar Manu

BIZKAIERAREN ETORKIZUNA IRAKASKINTZAN

Bizkaieraren eskoletako egoerari buruz garbi itz egin eban Laura Uraburu'k Deustuko Unibersidadeko Mai-inguruan.

Eta gaurko akatsak aipatu ondoren, Laura'k onelako laburpena egin eban:

Ezkuntz-sisteman egiten dan Erreforma desafio bat dala alde guztietatik irakasleentzat, batez be izkuntza arloan. Izkuntza eta pentsamenduaren arteko loturea zein sendoa dan dakigunezkero, jokabide barriak billatu bearrean aurkituko gareala argi dago, emaitz eta lorpen obe eta egokiak nai ba doguz be;ntzat. Vygotsky, Luria, Bruner eta abarren teorlak gogoan artu eta izkuntzaren irakaskuntza beste modu batera planteatu bear ko dogu. Elburua, eredu batuaren jaube egitea izango da, baiña ez epe laburrean. Ez dot uste iñok ukatu dauanik orren bear izana, baiña beste kontu bat dira bideak. Gaurregun umeak izkuntza arloan dituan aurretiazko ezaguerak ez dira sendotzen. Bestera, bastertu egiten dira eta au ez da jokabide egokia.

Izkuntzaren teorikoek diñoen ildotik, era onetara jokatu bear ko da:

1) Aurretiazko jakintzak abiapuntu izan bear dabe, eurok izango diralako ikaskizunera eltzeko lenengo mailla. Dakianetik abiatu, ez dakianera joteko.

2) Ikasketa esanguradunak segurtatu.

Zelan egingo da au?


—Ikasgaia, ikaleak dakianagaz loturik egon bear ko dau. Zegaitik? Konexioa bear dalako. Konexiorik ez ba dago, ez dau bere buruko eskemetan sartuko, eta buruz ikasi eta gero aaztu egingo dau.

—Ikasgaiak bere esperientzi, bizitza eta eguneroko bizitzagaz zer ikusia euki bear ko dau.

—Ikasgaiak funtzionala izan bear ko dau; batez be komunikaziñorako balio bear ko deutso, eta gauza barriak ikasteko.

—Orrez gain, motibaziñoa sortu bear ko da.

Gorago esan danez, desafio bat dogu au, eta auxe da momentua berplanteamentu bat egiteko, gogoeta eta ausartze sakonak egin ondoren.



EUSKERAZAINTZAREN LAN-SAILLEETAN LORTUAK ETA LORTZEKOAK

(Olazar'tar Martin'ek Erakundearen lendakaritza artu ebanean esandakoak)
DEBA'n, 1992'ko urterillaren 25'ean

Euskerazain eta Iankideok:

Ñoizean bein joan dan aldiari eta etorteko danari bagiratzea gauza egokia ta bearrezkoa da. Orregaitik, erakunde onen lendakaritza nire gaiñean iztea autarkiz erabagi zenduen ezker, lan au asieran olako zerbait egitea erabagi dot. Ortik aterako dogu gero, urte bi oneitan, lendakaritza au urte bitarako dan ezker, guztiok alkar lanean zer lortu bear genduken. Emen esango diran gauzak zuek aztertu, zuzendu ta osotu zeinkeez.

GURE ERAKUNDEA

Bergara'n 1978'an egindako Batzar Ñagusian erabagi genduan lez, sortu genduan Euskerazaintza erri-akademia, eta erakunde au legeztatzea be lortu zan. Arrezkero, illero batzen izan gara, lenengo Eibar'en eta gero Deba'n.

Batzarrerako deia, sasoiz eltzen da, gaien-zerrenda ondo eratuta etorten da eta batzarrak eurak be naikoa egokiro aurrera ateraten dira.

Bazkide osoen eta laguntzaillen zerrendea be osotuta edo osotu antzean dago. Euskerazaintza gure aldizkaria be dotore ta sasoiz agertzen da.

Erakundeari buruz nire uztez lortzeko dagozan gauza batzuk oneik izan daitekez:

Batzarrak egiteko toki egokiago bat bear genduke eta toki aretan argitaratutako liburuak eta aldizkariak eukiteko area be bear dogu. Eta gauza bi orreik baiño lenago, agiritegi edo artxiboa bear dan lez eratuta.

Gure batzarretan, asieran eta azkenean solas-antzera jokatu bear ba'da be, amaiketatik amabi ta erdietara gai-zerrendeari zeaz erantzuteko epea artu bear litzake, eta orretarako bearrezkoa da batzar-eratzaille bat, berbea emon eta ukatu, argitasunak eskatu, esandakoak ber-esanaz argitu, isillik egoten diranean eritxia eskatu eta olako zeregiñak beteteko.

Batzarretan il osorako lana artu bear litzake, eta zelan bete dan urrengo batzarrean esan.

Euskerazain osoak euren sarrerako itzaldia egin bear dabe, erabagita dagoan lez, eta itzaldi orreik, ondo eritxi ezker, irarkolan argitaratu, edo, gitxienez erakundearen agiritegian zaindu.

Erakundeak bazkide gazteak billatzen benetako lana egin bear dau. Ez da gauza erreza, baiña bai bearrezkoa, il edo bizikoa.

BESTE ERAKUNDE BATZUKAZ ARTU-EMONAK

Gizarte-giroan gagozen tokian gagozalako, lau eratako artu-emonak ikusten doguz geure jokabidean:

Batzuk adiskideak eta lagunak doguz: Kardaberaz, Euskerazaleak, Arbasoen izkuntza-zaleak...

Beste batzuk naikoa lagunak: Labayru, Lauaxeta, Eusko Ikaskuntza, Bizkai'ko Idazleen Alkartea.

Beste batzuk artu-emonik bakoak:

Laugarren arlo baten jarri geinkez, Jaurlaritza ta Alderdi politikoak.

Ikastolen artean be, batzuk doguz lagunak, beste batzuk ez ain lagunak.

••

Gizarteko artu emonen arlo oneitan, ona emen lortu bear gendukezan gauzak:

Lagun doguzanakaz artu-emonak ugaritu, kardaberaz'egaz esaterako, eta beste erakundeakaz.

Naikoa lagun doguzanakana, geiago urreratu bear garala uste dot eta, bear ba'da, baterako ekintza batzuk egin be bai, esaterako Labayru'gaz, Kili-kili'gaz, Lauaxeta ikastolakoakaz, BIA'gaz, naizta bazkide erakunde orretan nai dabenak baiño izan ez.

Eta ain lagun ez doguzanak, aztertu egin bear doguz, baiña bear ba'da euskerearen onerako ekintza batzutan alkartu be bai.

EUSKAREA INDARTZEN

Euskerea indartzeko bide bat lez, idazketa artu dogu: Liburu asko agitaratzen doguz eta au lan ederra da. Aldizkariak argitaratzen doguz (ZER, SASKI - NASKI, EUSKERAZAINTZA... KARDABERAZ) eta izparringietan idaz-lana agertu be bai.

Bizkaia'n EUSKERAZALEAK Euskal-Astea bizkaieraz ospatzen dabe eta irakaskintzan lan egin.

"Salatzen dogu" agiria be orretarako izan da eta ondorenak ikusiko dira.

Lan egokia da orretarako, baita, erri-esaerak batzea eta erri-izkuntza kasetetan artu eta azterketa egitea. Lan oneik asita dagoz eta jarraitu egin bear dira.

•..

Euskerea indartzeko arlo onetan ba-dagoz beste gauza batzuk be eginbearrekoak:

Gure liburuak eta aldizkariak zabalkunde geiago bear dabe, lenengo geure aldizkarietan eta gero beste asbiste-bide batzutan: Irratian, izparringietan, Urrutikuskiñean...

Ori lortzeko, zabalkunde-talde bat lortu leiken ikusi bear ko da.

Dana dala, idazketa-lan eder onetan jarraitu egin bear dogu.

EUSKEREA ERRIRATZEN

Gure izkuntza errietara sartzeko, zaletasuna lortzeko, jokabide egokiak izan dira omenaldiak: Ondarroa'n Txomin Agirre'ri, Karkastelu'n Markelin Garoe'ni Azkoitin, Nemesio Etxaniz'eri, Zeanurin Gabirel Manterola'ri ta Larrakoetxea'tar Bedita'ri, Mungia'n Lauaxeta'ri, Dima'n Lino Akesolo'ri...

•••

Olako omenaldiak egiten jarraitu egin bear dogu eta urrengoa Ubidea'ko semea izan zan Jon Kurutz Ibagutxi'ri egitea eskiko neuke nik.

Beste omenaldi aundi bat be aspaldion aitatu dogu eta oraindiño ez da egin: Abade idazle euskaldunai omenaldia.

Euskerearen egunak urtero ospatzeko bideak be artuta dagoz eta lenengoa laster eratzeko gara, Ondo litzake orretan jarraitzea.

Eleizeari be, euskerearen bidean laguntza emotea ondo izango litzake, esaterako Gaztañaga'ren azkenengo liburuak egin dauan lez.

Parrokietan eta errietan sortzen diran aldizkariari be laguntzen dautsegu eta geiago laguntzea ontzat artu bear dogu: Erri-euskerea geien or erabilli leike.

ERRI-EUSKERA BIZKORTZEN

Guztiok dakigu eta sarritan aitutzen dogu, zelako kaltea egin dautson gure euskereari, batez be bearrena dan erri-maillan, euskera batua deritxoena. Guk eragin orreri erantzuteko alegiñak egiten doguz eta zerbait lortzen dogula be esan lei: Gaur euskalkien aldeko giroa indatsuago ikusten da. Deustu'ko Mai-Inguruan, esaterako, ikusi genduan lez.

Ekintza orren ondorena izan leiteke, baita, batu-zaleen artean aspaldion agiri diran eztabaidak eta zalantzak.

•••

Erri-euskerea indartzeko, ekin eta ekin bearco dogu, ikastola ta ikastegietan umearen euskalkia bera artuta irakatsi dagien. Izan be, gure sendietan kalte aundia egin dau umeen euskerea eta gurasoena antzekoak ez izateak.

Gaurkoz gogorkeri antzera agertzen ba'da be, nik uste dot euskeratik atxea kendu daiten ekiñakdia egiteko sasoian gagozela. Orretarako eskari sakon eta argi bat egin bear geunskie Euskaltzaindiari eta Jaurlaritzari.

URTE BI ONEITAN EGITEKOAK

- 1.—Batzar leku egoki bat lortu, agiritegia ta liburutegia barru dirala.
- 2.—Batzarretan eratzaille bat ezarri eta ordu ta erdi eskiñi lan sakonari.
- 3.—Illero agertu bakoitxak zein lan egiten diarduan.
- 4.—Sarrerako itzaldiak egiten ainbat lasterren asi.
- 5.—Bazkide gazteak lortzeko bideak billatu.
- 6.—Lagun doguzan erakudeakaz artu-emonak ugaritu.
- 7.—Ain lagun ez doguzan erakundeakaz, artu-emon orokor batzuk sortu.
- 8.—Jaurlaritzagazko artu-emonetan jarraitu.
- 9.—Al dan neurrian alderdi polltikoakaz artu-emonak izan, geure lekua zaintzen dogula.
- 10.—Idazketa-lana jarraitu: Liburuak, aldizkarietan, egunkarietan...
- 11.—Liburuen eta aldizkarien zabalkundea geiago egin.
- 12.—Zabalkunderako taldea sortu.

- 13.—Erri-izkuntza kasetetan artzeko ta aztertzeke lanean ekin.
- 14.—Omenaldiak egiten jarraitu. Urrengoa Ibartxixi J.K.'eri eta beste bat abade idazleai.
- 15.—Euskerearen egunak ospatu.
- 16.—Errietako eta parroketako aldizkariari lagundu.
- 17.—Irakaskintzara euskalkiak sartzeko eskarietan ekin.
- 18.—Atxea kentzeko eskariaren oiñarriak gertatu eta eskaria egin.
- 19.—Gure batzarren agiriak geure aldizkarietan argiratu ala ez, aztertu.
- 20.—Arlo guztietan zabalkundeari ardura geiagogaz begiratu.

GAIK

1.—GURE ERAKUNDEA:

LORTUAK: • Legaztatzea

- Ileroko batzarra
- Bazkide osoak eta laguntzailleak
- Euskerazaintza aldizkaria.

LORTZEKOAK: • Batzar-leku egokia

- Batzarren eratzea
- Iler osorako lana
- Sarrerako itzaldiak
- Bazkide gazteak

2.—BESTE ERAKUNDE BATZUKAZ ARTU-EMONAK

LORTUAK: • Lagunak

- Naikoa lagunak
- Ez ain lagunak
- Jaurlaritza
- Alderdi politikoak

LORTZEKOAK: • Lagunakaz artu-emonak sakondu ta ugaritu

- Naikoa lagunakana geiago urreratu
- Ez ain lagunakaz, elburu orokorretan batera.

3.—EUSKAREA INDARTZEN:

LORTUAK: • Liburu argitaratuak

- Aldizkariak
- Izparringietan
- Euskal Astea bizkaieraz
- "Salatzen dogu"
- Zuzenketak
- Erri-asakunak batzea.

LORTZEKOAK: • Liburuak eta aldizkariak geiago zabaldu

- Erri-izkuntza kasetetan eta azterketa
- Liburu ta aldizkarietan idaztea jarraitu
- Idaz-lanak zabaltzeko talde bat sortu.

4.—EUSKAREA ERRIRATZEN

LORTUAK: • Omenaldiak

LORTZEKOAK: • Ibartxixi'tar Jon Kurutz'eri omenaldia

- Abade idazleai omenaldia
- Euskerearen egunak urtero
- Eleizako euskereari laguntza
- Erri-aldizkariari lagundu.

5.—ERRI-EUSKAREA BIZKORTZEN

LORTUAK: • Giro ohea (Deustu'ko Mai-Ingurua)

- Batu-zaleen eztabaidak eta zalantzak

LORTZEKOAK: • Irakaskintzan, Atxea kentzeko ekiñaldia, Zabalkunde geiago.



871'N ARABA'KO LARRUKI BAT

(Jarraipena)

Sei toki-izen gelditu zitzaizkigun aztertzeke "Euskerazaintza"ren azkeneko zembakian:

ALCOPA

MURIELES

ESTIVALIZ

PAMPILONA

BERGALE

SALONE

ALCOPA.— Esan genduan lez, IX mendeko larruki zaar oni, beste bi erantsi zitzaizkion geroago. Aski zarrak, biak. Bata, X mendekoa; bestea, XI'engoa.

Erri izen au, Alkopa, X mendeko eraskiñean dator: "Dompno Munnio episcopo Begilaza obiit in rivo de S. Stephani; Tumulus est in Alcopa": "Muño Begilatza gotzai jauna Esteban Deunaren ibarrean il zan; Alkopa'n dago obiratua".

Luziano Serrano'ren ustez Alkopa au gaur-egun Alcoba deritzan Sori'ko erri bat ornen da. Baleike. Gotzaiak, batez ere antziñako egun aietan, asko ibiltzen ziralako, edozein tokitan iltzen bait ziran. Alare, "Munnio" izeneko gotzai bat izan bait zan orduan Armenti'n, eta gure larruki ontako Munnio'ren abizena—edo izengoitia— "Begilaza" bait zan, euskalduna eta Armenti'ko gotzai izanik, ez zait sinisteko gauza iruditzen, gotzai ura eriotzak Sori'n arrapatu izatea, bere jurisdizio edo aginmena aráíño iristen ez bazan beintzat. Orregaitik, nere ustez, Alkopa, Araba'n zegoan eta aspaldi ezabatu zan erri bat dugu.

Alare, ez nioke Sori'ko ALKOPA'ri txolarterik ukatuko. Baleike bá Sori'ren iparreko errientzat gotzairik urbillena Armenti'koa izatea. Sori'tik egoalderuntz guztia mauritarren mendean bait zegoan. Baita, Euskalerrian bertan, len gotzai-uri izandako Kalagurri ere.

Gaiñera, Sori'ren iparraldean euskeraz itzegin zala badakigu, eta IX eta X mendean ere seguruaski euskeraz egiten jarraitzen zuan an jendeak. Baiñan ori kontuan artuta ere, ez dugu larruki ontako ALKOPA'ren egoitza billatzeko Sari'raíño joan bearrik, gaurko Euskalerra ontan bertan asko ditugu bá "ALK" aurrikiz asten diran toki-izenak; eta baita "BA", "BE", "PE" "PA" atzizkiz amaitzen diranak:

Adibidez, Alkoz izeneko errixka bat Naparroa'ko Ultzama'n. Alkorbe, abizena, eta Aragoi'en, Ibero ibaiaren iparrean, Alkubierre, Zaragoza'tik ikusten dan mendi-kate baten izena. Aráíño itzegin bait zan, eta aráíño itzegiten bait zan euskera larruki onen eta bere eraskiñen aroan: IX, X, eta XI

mendeetan. Alkazarra, Araba'ko zelaiean larre baten izena dugu. Ez Gazteiz'tik urruti: Miñano'n.

Alkola, Laburdi'n abizena da, eta baita Alkain ere donostialdean.

Alkopa'ren etimologia?

"ALK", "ALKA", —Kerexeta'k dionez—, "Larre" ornen da. "Pastizal" gazteleraz.

Ondo jarria dauka beraz Miñano'ko belardiak izena: ALKAZARRA = Larre Zarra. Kerxeta'k damaigun "ALK" eta "ALKA" itzen zentzu ori ontzat artzen ba'dugu, ALKOPA'ren "PA" atzizkiak zer dan jakitea ez zaigu zaila gertatuko, "P" eta "B", euskeran, errez alkar-trukatzen bait dira. Adibidez, Iturbe, Iturpe; Arripe, Arribe; Mendipe, Mendibe; Arbillaga, Arpillaga. Eta eguneroko izketa arruntean, "pake" "bake"; "barkatu", "parkatu", "bitxi", "pitxi", etabar.

Era ortan, ALCOPA, Alkope edo Alkobe izango genduke.

Beraz, Kerexeta'ren etimologiari jarraituz, Larruki ontako ALKOPA ori, LARRABE, edo LARRABEA biurtzen zaigu. Ain zuzen, larrukiak damaizkigun izenik geienak, ia danak, Araba'ren iparraldekoak diran ezkerero, esan dezagun, antxe bertan, Legutiano'ren alboan, LARRABEA izeneko jauregi zar bat badala, orain, golfelarien joku-toki izan dedin, txukunki prestatutako belardi ederrez inguratua.

MURIELLES.— Izen au ere X mendeko eraskiñean datorkigu; Larrukiaren izenpeketan lekuko edo testigu egiten duten jaunen artean: "Albaro Sarrazinez in Murielles": "Albaro Sarraziñena Murielles'en (agintari)".

Gaur, Murielles orri, Morillas esaten zaio. Araba'ren sarkaldean Arkamo eta Badaya mendikateen artean dago, Tetxa deritzan arrupe ikusgarriaren egoaldeko sarreraren ondo-ondoan.

XVI mendearen azkenaz gero, euskera galdua du. Alderantziz, bizirik iraun du euskerak joan dan mendera arte Tetxa'ren iparrean.

Txikiak baiña aski ugariak dira mendeak zear bere izenak jasan dituan aldaketak: Morielle, X mendearen erdian; Murielles, 984'ko gure larruki ontan, eta XI'go beste batean; Morellas, XII'en mendean; Murielas, XIII'garrenean, eta ortik aurrera, Muriellas, Murillas, eta azkenean, Murillas, eta Morillas XV'ean. Abizen bezala berriz, geienetan, Morillas.

Itz ori, ordea, euskalduna ote dugu?

Ez danen ustez. "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco" deritzan iztegian Aihoa Arozamena Ayala'k beintzat "debe el nombre a las murallas de su recinto defensivo, ya que (Murillas) era un punto estratégico en la línea defensiva de "Alava y Al-Qile" contra las acedas musulmanas".

Ez, Ainhoatxu, ez. Etimologi errezegia dun ori, nexka. Eta gezurrezkoa gaiñera. Ona zergaitik:

1: X mendean gaztelerarik ez zan oraindik jaio. Egia, lateraz ere "muri" esaten zitzaiera arresiei. Emen ordea..., ez zan sekulan lateraz itzezin!

2: Murielles aurkitzen zan lekuan orrelako uri arresiturik beifñere izan ez dalako. Torretxo bat, bai; baiñan geroagokoa.

3: Garai artan urtero ekiten zioten mauroek Araba'ri. Baiñan beren edestilariak Araba aipatzen dutenean, gaurko Araba ez baiña orduan Araba'rena zan Bureba da, egiaz aipatzen dutena. Ta, Araba ura, oso urruti

zegoan Morillas'tik. Urrutiago oraindik Al Kile. "Al Kile" edo "Gaztelueta" ura, Burgos eta Palentziaren arteko mugan bait zegoan. Gaur-egun Amaya dagoan tokiaren inguruan.

Zu, Ainhoa, Mitxelena'z fidatu zera noski. Ark ere, batere zalantzarik gabe gure euskal-izendegiko MURU itza, "muralla, pared, montón" dala bait dio. Baiñan oartzeke utzi duzu, Ainhoa, naiz berak erdelkerira jo, alboan oartxo au idatzi zuala beintzat Mitxelena'k: "Se ha empleado también por algunos con el sentido de collado".

Mitxelena'k ez du bere aburuaren alde arrazoirik ematen, eta zure arrazoiketa orrek berriz, Ainhoa, ikusi duzun lez, ez du batere balio Murielles erdal-izena danik uste izateko. Gaiñera, lurralde guzti artan Euskera besterik egiten ez zalako, izen ori, euskalduna izan dugu naitanaiez.

Eman zaizkion izen ugarietatik, erri orren egiazko izena MURILLA izango da seguruaski. Zergaitik gazteleraz "Murillas" ugari-keran agertzen dan? Erri bikoitza dalako. Bi puska egiten bait du erditik igarotzen zaion Baias ibaiak. Ibaiaren eskubiko puskari, Morillas esaten zaio oraindik; ezkerrekoari, Subijana de Morillas. Bi puskak bateratzen dituan "Subi" edo zubi ori bi pusken erdian dago.

Erriak bezala, MURILLA itzak berak ere, toki-izen euskaldun guztiak bezala, bi puska ditu: Itzaren enborra: MUR. Eta, enbor orri loturik, atzizki bat: ILLA.

MUR enborra, oso ugari dakusgu Euskalerrri guziko toki-izenetan: "Mur", ipar-Aragoi'an abizena, eta Arba'ko Errioxa'n errekatxo bat dugi. "Mura", Aiala'n landa bat. "Murabe", Zigoiti'n toki-izena. "Murga", Aiala'n erriska bat. "Murgi", Laburdi'ko Sara'n abizena. "Muru", Laburdi'n bertan, Ainoa'n, auzo bat. "Murumendi", Gipuzkoa'n mendi ezaguna. "Murillo", Napparroa'ko erri batzuen izena. "Murua", Zigoiti'n erria, eta, nunnai, abizen ugaria.

MURU, nere ustez, euskeraren "arkeologismu" edo "antziñ-itz" bat da. "Oro", "Oka", "Oña", eta orrelako beste batzuei bezala, gaur zentzu ziurrik ezagutzen ez diogun itza.

Kerexeta, Valle Lersundi, ta beste batzuen ustez, "Muru", edo "Moro", —"O" euskeraz errez biurtzen bait zaigu "U"— gaztelerazko "collado" omen da. Lopez Mendizabal'dar Ixaka'rentzat berriz, "M" edergaillua aurretik duala, gazteleraz "helecho" esan nai duan "Uru"; edo "Oro", esan dugun lez "O" errez "U" biurtzen dalako.

Nik zer pentsatzen dedan?

Bá... nik pozik artuko nuke Kerexeta'ren eta Kerexeta'k bezala pentsatzen dutenen aburua, aburu ori zertan oiñarritzen duten ba'neki.

Ez ordea beti. Nere uste apalez, askotan, bereiziki "Muru" itza, "mendi", "zulo", "erreka" edo orrelako zerbait adierazten duten atzizkiekin datorrenean, —"Mauru" "Mairu" eta "Miru" bezala—euskal-mitologi edo "jainkiztiko" jainkotxi batzuen izena bait da. Batez ere, orrelako izen bat daramaten tokietan edestiaurreko aztanarik aurkitzen ba'da.

Orrela, adibidez, onako toki-izen auetan: Murumendi, (Gipuzkoa'ko Goierri'n); Mairubaratza, (Napparroa'ko Zugarramurdi'n); Mirulanda (Gipuzkoa'ko Lenitz'en). Eta beste ainbeste eta ainbeste Euskalerrriko toki-izenetan.

"MORO" ori itz zarra izan bear du Euskera-baitan. Erromateko Plinio'k aipatzen bait du MORORGI bat, Oiartzun eta Kantauri bitarteko itxas-ertzean:

"Vardulorum oppida, Mororgi, Menosca, Vesperies, Amanum portus ubi nunc Flauio brigia colonia" (IV, 110) "Bardulitarren uriak: Mororgi, Menosca, Vesperies, eta gaur Fauio brigia izeneko erromar-urriaren egoitza dan Amanum kaia".

Mororgi ori non zegoan ez dakigu. Vale Lersundi'ren iritziz, Urumea'n, Ernani'ren ondoko Erdozi'n. Baleike. Dirudianez, Oiartzun'go meatzetatik oso bertan bait zegoan kai ura.

Ta? Morillas izenaren ILLA atzizkiar-buruz zer esan?

"ILLA" atzizkia oso ugaria dugula Euzkadi osoan: Ubilla, Unzilla, Sorabilla, Urkilla, Ertzilla, Espilla, Azpilla, Martzilla, Andosilla, Arribillaga, Azpillaga... Eta baita, "A" bigarren atzizkirik gabe ere: Usurbill, Errezill, Sasibill, Enbill, Godobill, Mendibill...

"ILL" edo, berdin dana, "ILLA" zer dan, ziur ez dakigu, baiñan, itxuraz, atzizki ugaritasun-adierazlea dala dirudi. Ortaz, Urkilla, Araba eta Gipuzkoa'ren artean dagoan mendikatea, "urki askoko tokia" izango litzake, eta gure MURILLA, "muño ugari dun tokia", Kerexeta'ren etimologia ontzat artzen ba'dugu.

Nere ezjakintasuna aitortzeko izan ezik, ni ez naiz ezer esatera ausartuko.

SALONE.— Izen au 871'ko larrukian dago, eta lengo idazlanean, ni oartzeke azturik gelditu zan. Larrukiak onela dio: "Offerimus et donamus ob honorem Sancti Vincenti de Ocoizta et tibbi abba domino Petro, ecclesias Sancta Gratia et S. Martini in villa Stabellu, de illo fresnu usque Salone cum terminos et pertinentia...": "Okoizta'ko Donebixenteren omenez, zuri Kepa abata jaun orri eskeintzen eta ematen dizkizugu Stabellu urian Donegarazi eta Donemartiñ'en jauretxeak beren lur eta aberastasun guztiekin lizar artatik asita Salone'raño.

Zer ote dugu Salone ori?

"Salo'z asten diran izenak baditugu: Saloaga, Saloguen... Etimologilari guztien ustez, "Salo" oh "Solo"ren aldaketa besterik ez da: Soloaga, Sologuen.

Gura larrukiko SALONE ori, laterara biurtutako euskal-itx bat beintzat ez da. Erdi-aroko lateraren iztegieta orrelako itzik ez bait dager. Izen orren antzarik audienekoa, Du Cange'ren "Glossarium Infimae et Mediae Latinitais" iztegian au dator: "Salona". Baiñan, Salona, "dea maris", ots, "itxasoko jainkeme" bat ornen da. Eta, Araba'n itxaso bat ez dalarik, zailki izan daiteke itxas-jainkemerik.

Baiñan, naiz gure Salone edo Solone au laterazko itza izan ez, ederki izan daiteke lateraren arauara tajututako euskal-izen bat, lumalari zaar ura lateraz ari bait zan idazten. "Solo" euskal izena lateraz "solo, solonis" bezala deklinatu edo jokatu ezker, izen orren ablatibu-era "solone" izango litzake.

Erdi-aroko lumalari aiek berriz, oso maiz, itzak ablatibu-eran ipiñiz gero, itz oiek, deklinakaitzak bait liran, aldatzeke erabiltzen zituzten esaldia-zear. Orrela, Solone ori, lateraz ablatibu deklinakaitza biurtutako gure "Solo" euskal-itza besterik ez da. Solo: gipuzkeraz, Soro.

— Lumalariak, lenengo lumalariak, "solo" ori, mugaren adigailutzat eman zuan. Ez zan beraz nolanaiko soloa.

- Gaiñera "S" nagusiz idatzi zuan.

- Ez ote zuan bá toki-izen bat idatzi nai izan? eta toki-izen ori, ez ote zan SOLOVE izan?

Lumalari aiek "B" eta "V", batez ere laterarentzat arrotzak ziran itzetan, oso errez nasten zituzten. Lateraz "e" izkiaren aurrean oso maiz "V" erabiltzen da. Eta, "V" ori askotan "U" idazten zuten.

Lenen lumalari ark, euskeraz bazekian. Baiñan ez, seguruaski, aren urrengoek. Kukulla'ko Donemillian'en larruki auek bein baiño geiagotan izan bait dira ber-idatziak.

Baleike beraz lenego lumalari ark Solove edo Soloue idatzi izatean, eta gero, -"V" eta "U" izkiak "N"rekin errez nasten diralako-, euskalduna ez zan lumalari asturiar batek XII mendean Salone irakurri eta Salone idatzi izatea.

Larrukiak zintzo irakutzea zeñien gauza zailla dan Oartzeko, ikus larruki ontan bertan gaur-egun gertatua:

Nik Luziano Serrano abata beneditarraren liburutik arto dut lateraz eman dizudan esalditxo ori, baiñan begien aurrean euki dut Ubieto Arteta Balentzi'ko Unibersitateko irakaslearen liburua. Bi gizonok dira gai auetan oso yayo ta jakintsutat goretsiak. Ona ba: naiz esalditxo ori arras laburra izan, ez dute biak era berean irakurri: "ob honorem" irakurri du Serrano'k; "ab honorem, Ubieto'k; "domino Petra", Serrano'k, "domno Petra" Ubieto'k.

Danadala. Salone orren azpian naitanaiez euskal-izen bat egon bear du, IX Mendean, Araba'ko lurralde ortan ez bait zan euskera besterik egiten. Ez litzake arritzekoa, Salone ori, erriaren ezpaiñetan, eta lenengo idazle euskaldun aren lumaren punttan, SOLOBE, gipuzkeraz SOROBÉ, gertatu izatea.

BERGALE.- "Decano de episcopo Oveco presbiter de Bergale" dio X mendeko eraskiñak: "Obeko gotzaiaren maizterra ta Bergale'ko bereterra". ("Presbitero", euskeraren itz zaarrez "bereterra" bait da).

Oroi dezagun larruki onen gunea, Okoizta'ko lekaidetxea zala eta orduango Okoizta arri, gaur-egun Akosta esaten zaiola. Bá, antxe bertan, Akosta dagoan lurraldean, badiutugu gaur Bergale'ren itxurako izen bi: Bergara eta Bergantza, Bergara, Urrunaga erriko bazter baten izena da; eta Bergantza, Altube errekarra dijoan errekatxo baten izena.

Idazti ontan ordea, Bergale erdiaroan "decania" esaten zitzalen "koloni" edo lur ta ethez osotutako nekazalgo aietako bat zan seguruaski, Gaur, Bergale aren aztarnik ez dago.

Etimologia ez du erreza. Bergantz, gaztelerazko "quincallero" dala, dioskute Azkue'k eta Plazido Mujika'k, baiñan zentzu orrek ez digu gure Bergale onen esannaia igartzeko balio.

"BER" aurritzia, lateraren "viga" -"gazteleraren "verga"- dala dio berriz "Enciclopedia Ilustrada del País Vasco" k. Euskeraz, "virga"ri, "makilla" esaten diogu. Eta itz onek ez du "Berg" aurritziaekin zer ikusirik. Orregaitik, latinzaleegia dan iztegi orren etimologi orrek ere ez digu balio.

Lopez Menzizabal'ek BER, BERGA, "larre" dala uste izan zuan, eta "B" edergailluz, eta "larre" esan nai duan "erga"z osoturik zegoala. Uste ortakoa dala dirudi Kerexeta ere.

"LE" atzizkiaz ez dizu inork azalpenik emango. Bildur aundiz, ni, atzizki toki-adierazle bat dala esatera, apika ausartuko nintzaken.

Ezin esango dizut ba larrukian datorkigun BERGALE ura zer zan. Euskal-izena zala, ori bai, lurralde artako jendeak orduan danak euskaldunak ziran ezkerero. Baiñan euskal-izen ori, lumalari zaar aiek nola aldatu zuten, ez dakit.

ESTIVALIZ.— Euskalherri osoan ondotoxo ezaguna dan izena, bai noski. X mendeko eraskiñean, jauntxo baten erri edo gaztelu bezala datar: "Audivita Didacoz in Estivaliz": "Audibita Didakorena Estibalitz'en (agintari)":

Aldakuntza batzuk izan ditu izen onek mendeak-zear: Estibaliz, X mendeko Idazti ontan; Stibalez XI mendean; Estivales eta Estivalez XII'garrean;

Bertako Miren Neskutsaren jauretzea aipatzen duan lenen dokumentua, X mendekoak dugu: 984'garren urtekoa.

Zer-regin bereizia izan zuan Estibalitz'ko Miren Doneak edestia zear, bera bait zan Arriaga'ko Batzarretan Lendakari. Ortarako ibildeun apain batean eraman oi zuten bere irudia Araba'ko erriaren Ordezkariek Estibalitz'ko jauretzetik Arriaga'ko Laku'n zegoan Donibaneren elizatzora, eta an, irudi ura lendakari zutela eratu ta ematen zituzten Araba'ko legeak.

Beraz, iñon munduan Miren Donea lurralde bateko Erregiña izan ba'da, Araba izan du Miren Doneak bere lurralde ori.

Beste zerbait arrigarria ere bazuten Arriaga'ko batzar aiek: emakumezkoak an gizonezkoen eskubide berdiñekin batzarkide izatea. Gaur, emakuntza edo feminismoa galda-galdan dabil. Jakin bezate ba, gizonezkoak bezalakoak izatea besterik nai ez dutelako, geienak beintzat, emekuntza-zale baiño ar-zale geiago dirala diruditen eme marrulari oiek, Euskalherriko demokrazian izan zirala emakumeak beste iñon baiño leenago lege-egintzaille, eta munduan dokumentu emakuntza-zalerik zaarrena, ortaz jabetzen gaitun Araba'ko Lege Zarra dala.

Arriaga'ko Kofradia esan oi zitzaion Arriaga'ko Batzar Nagusiari; eta, izen orrekin, XIII mendekoa da. Baiñan askoz zarragoa beste izen batekin. Leenago Oka'ko Kofradia esaten bait zitzaion, bere Batzarrak, gaurko Foronda egazkinlandatik bertan, Oka izeneko zelai batean egiten zitualako. Kofradi onen aipurik zarrena I Gartzia Santxorena Naparroa'ko erregeak 962'garren urtean damaiguna da.

Asko izan dira "Estibalitz" itzaren etimologia aurkitu naiean ibilli diranak, baiñan ez du inork ezer garbirik idoro. Latinzaleek, izen ori, laterazko "aestivalis" itzetik datorrela oiur dagite. Estibalitz, "udarako tokia" izan omen zan erromatekoan: "Lugar estival" gazteleraz. Eta Akitani'n ere Estibalitz'en antzeko toki-izen bat bai omen zan.

Akitani'n ere orduan euskeraz egiten zan-da, an eta emen izen berdiñak Ikustea, ez da arritzeko gauza. Baiñan orrek ez du esan nai lateratik datozen Izenak diranik.

Egia da, Estibalitz'tik bertan igarotzen zala erromatarren bide nagusia, eta Estibalitz'tik emeretziren bat kilometrorra dagoan Iruña'ko "castrum" edo "arresis babestutako uri" erromatarraz gaiñera, Estibalitz'tik iru-lau kilometrorra dagoan Arkaia errian erromatarrek bizitu zirala.

Izango luke beraz latinzaleen aburuak arrazoi-apur txiki bat, Euzkadi'n ESTI'z asten dan abizenik eta toki-izenik ez bagendu. Baditugu ordea, eta ugari gaiñera. Ona oietako batzuk:

Estibil, Araba'n abizena; Estibaoz eta Estibauz, Donosti'ko abizenak; Estibi, Gadakano'ko Arteta'n arrupe bat; Estiburu, 1552'tik 1559'ra Bergara'ko S. Marina'n lan egin zuan arkitekтуaren abizena... Eta gure kondairan bertan ere agertzen zaigu ESTI miresgarri ori. Ez da edestiko gauza; kondaira edo "leyenda" utsa baizik, baiñan Dalda, Jaunzuria Bizkai'ko lenen Jaunaren emaztearen aitak, ESTIGIZ, ots, Estirena, ornen zuan izen: Santxo ESTIGIZ Orduñez. Eta Durangoaldekoa ornen zan.

"Esti" oiek, eta agertzeke uzten ditugun oiek bezalako besteek, ez dute noski laterazko "aestiva" eta gaztelerazko "estiva" rekin zer ikusirik.

Zer ote da bá gure Estibalitz?

"Ezti-lbar" dala esateak, ez du balio. Itz-joku errezegia da, eta, gaiñera Estibalitz ez da ibar bat: Muño bat da. Ta, muño artan eta bere inguru guzian ez da sekulan lurrari izen-eman aal izateko aña erlerik eta ezirik izan.

Itz-joku nabarmenagoa da oraindik Eskijaga'k damaigun onako au: Estibalitz edo Estibaritz "herbal del conjuntu de peñones" ornen da! Eta bitxikeri ortara iristeko, ikus nolako dantzak egiten dizkigun izen orren izkiekin: "—Es"+"Ti"+"Baritz". "ES", "AITZ"en laburpena dala diosku; "TI", atziki toki-adierazlea; eta "BARITZ", gazteleraz "herbal" esan nai duan "BARATZ"en laburpena: "Es+ti+baritz": "Herbal del conjunto de peñones". Baiña belardi baiño larre legorra geiago de Estibalitz'ko muñoa, eta an aitz-sortarik ez da; askoz gutxiago "conjuntu de peñones" izan daitekean aitz gorrizko talderik.

Orrela jokutzen asi ezkerro, errez "egiztatuko" nuke nik Teguzigalpa, Kostantinopla, Yantsekiang eta Sanpetersburgo, euskal-izenak dirala.

Izan ditugu Estibalitz itzaren "Esti" ori "Arte" dala uste izan dutenak: "Arte" > "Aste" > "Esti". Oientzat, "Estibalitz", "Arteaga" izango litzake: "encinal".

Beste batzuek "Esi" ikusi nai dute "Esti" ortan: "Esi-Ti" > "Es"— "Ti". Orrela, "Esileku" biurtzen digute Estibalitz.

Onatx, orain, nere iritzi apala:

Itzen asieran "A" oso errez biurtzen da "E". Ikus adibide pittin batzuk, zuk zerorrek errez gogoratuko bait dituzu geiago: "Estada", "Astarta"; "Agiñeta", "Egiñeta"; "Eldua", "Aldua"; "Aizmendi", "Eizmendi"; "Astigarribia" "Estigarribia"; eta ementxe, Estibalitz'en alboan, "Eskartza", "Askartza", "Aizkibel", "Eskibel", eta "Astarrona", "Estarrona".

Ori gogoan artuz, ez ote dago "Estibalitz"en "Estibal" orren barruan izkutaturik, "Astigar" zendo bat?

Ez dakit neronek ere galde orri nola erantzun. Baietz esango nuke "astigar"en "R" ori goxoa ba'litz, orduan Estibalitz "Estigañtz" izango bait litzake: "Astigaritz"en aldakuntza. Baiñan "R" ori gogorra izanik, baiezko erantzun bat ematera ez naiz ausartuko. Gauza neketsua dala etimologigintza!

Latiegi'tar Bixente



TENE MUJIKA IDAZLE EUSKALDUNA

BERE EUN-URTE-MUGAN

TENE EUSKALDUN FEDEDUN: 1988

Tene Mujika Deban jaio zan maiatzaren 24an, urtea 1888, euskaldun eta abertzale giroan. Aberriaren ezaugarria mintzaira danez, Euskera beti biotz-muiñean eraman zuan. Abertzaletasunak erakutsi zion euskaldun izaten. Bere euskera-zaletasuna ez zan (izan) izarretan dabillan lillura maitagarri bat; ekintzetan mamitutakoa baizik. Il arteraiño ekin zion euskera lantzeari eta euskeraz idazteari...

Auek aurretik gogora nai ditut, nere gaiari eldu baiño lenago; Tene euskaldun abertzalea, Tene euskaldun idazlea, "euskaldun fededun" izan zitzaigun jaiotzetik eriotzararte.

Kristoren Fedea eta Maitasuna, biak, izan zitun, bizitza osoan zear eta etenik gabe, bere barne-bizitzaren eutsigarri eta arnasa...

NAIZ-ETA gerrateak aurretik eramana izan... Naiz-eta, guda negargarri orretan, Elizaren Apostoluen zenbait ondorengoek bere aberriaren aurka jokatu... Naiz-eta luzaroan exilatuta bizi... Naiz-eta, errira etorrita gero, erbesteratua izan...

ALAZ ERE ez zuan ukatu Kristo eta bere Elizarenganako sinismenik; federik ez zitzaion otzitu. Fedea galtzekotan, Jesusek berberak galdu bearko zuela, oso garbi ikusten zuan Tenek. Izan ere Amabi lagun aukeratu bere Elizaren oiñarri. eta oietatik batek, eskutara zillar bategatik, bere Maixua saldu zuan eriotzarako; buruzagi bezela aukerutakoak, berriz, bildurrez, uko egin zion, juramentu eta guzti, eta beste amarrak iges, Maixua etsaien atzaparretan utzita...

Jesusek Eliza gizon-emakumeentzako egin zuan, eta, uts asko egin dezaketen gizon argalez osatua. Orretxegaitik bialdu zien bere Maitasunezko Arnasa, Eleizaren benetako eusgarri eta zuzendari. Or tartean dabiltzan gizonak dira bat eta oien ondoren dabillan Arnas-espirtua beste bat.

Gauz auek argi eta garbi ikusten zituelako, gorde zitun beti Tenek bere biotzean Fedea eta Maitasuna. Oieri esker, ez zuan bein ere ltxaropenik galdu: ez beste mundokorik, ez mundo onetakorik ere. Larogeita amar urte beteta gero ere, nola eta zer idatziko pentsatzen, garai berrietarako bide berriak nola asmatu... Ondotxo zekien Tenek, Kristoren fedetik ikasi zuela Euskalerrriak

jatortasuna eta zuzentasuna eta ortik sortu zitzaizola aberriari munduan zerar zeukan izen ona eta izen orrek ez zion gutxi berari lagundu exilatuta ibilli zan garaian...

Tene Kristoren Fedean eta maitasunean bizi eta il zan.

Entzunda zeukan poeta berrien esaera au: Guretzako kristo Marx da. Tene'rentzako benetakoko Kristo Jesus zan eta beste guztiak kristotxo batzuek besterik ez.

Beste aldetik, berriz, ondo begiratu ezkeror, marxismoak dituen alde onak Jesus'engandik artuta dirudite. Jesus eta Marx biak ziran judutarrak. Marx bera European jaio zan, la bi milla urtez kristautasunak girotutako Europa zaarrean... Marxismoa ez an Asian sortu Confucio eta Budaren inguruan. Ezta Afrikako erri majikoen artean ere. Kristau giroan sortu zan judutar baten burutik.

Jesusek eta Marxek Moises'engan zeukaten beuren sustraia eta Moises'ek emanak dira, justizia eta zuzentasuna gordetzeko diran Amar Aginduak; Jesusek bitan bildu zitunak, Jainkoa eta lagun-urkoa maitatzean, alegia.

Moises eta Jesus kanpotarrak ornen dira gure artean; Marx areago, eldu berria dan ezkeror. Jesusek gurekin milla urte ondotox pasiak daramazki geure artean. Euskaldunek Kristoren Legea beuren biotzetan mamitu zuten, kulturaren agerpen bihurturik. "Euskaldun fededun" ez zan itza utsa bakarrik; izana ere bazan. bi itz auek oso-osorik betetzen ziran Tene'rengan. Berau bai zala benetakoko "euskaldun fededun".

Kristautasuna atzo kanpotik etorri zalako, gaur arbuiatu eta madarikatu bear badegu, berdin egin bearoko degu kanpotik datozkigun kultura berri guztiakin, marxismoarekin batera. Arrazoi orregaitik ba da, Kristautasunarekin batera bota bearoko ditugu Erromatarrek ekarritako kultura aberatsak, Ario eta Zelta erriak ekarritakoak; esate baterako, San Juan-suak, Olentzaro, lauburuak, trikuarreien kultura eta abar. Baiña, ez oiek bakarrik, baita majia-siniskeri ugariak ere.

Auxe adierazten digu esandako onek, alegia, gu euskaldunok asmatzaille baiña kopiaizaille obeak izan gerala beti. Ori bai, onartzen dizkitugun kultura-gaiak gure mami bihurtzen, orretan mutillak gerala ... Guk ez genduan txapelik asmatuko, baiña gure-gurea egin degulako, "beret basque" edo "boina vasca" izenekin ezagutuko dute munduan zear... Berdin gertatu da pelotarekin ere: gure aurretik griegoek European eta indio-maiek Ameriketean egiten ornen zuten balotan; baiña gu artan jokatzen asita gero, "pelota vasca" bihurtu degu...

Kristautasuna ere gure-gurea egin genduan "euskaldun fededun" esateko eran. Kristau-kultura, kanpotik artutako beste guztiak bezela, guretik kanpora bota bear ba'ditugu, orduan ezurretan geldituko gera. Ezur igarretan: ez erri eta ez kultura.

Kristautasuna kentzean, gure bizitza-izate eta kulturaren zati ederrena kentzen diogu Euskalerriri... Arazo au Tenek oso argi zeukan bere begien aurrean eta orretxegaitik izan zan beti euskaldun abertzale, euskaldun idazle eta "euskaldun fededun".

Arrinda'tar Anes

IKASTOLARI BURUZKO BERRIAK

DEBATIK

(25 URTE BETEAK) (1989)

1936-60: Euskeraren giroa

Orduko giroa gaur sinistu eziña da. Bi gertaera bitxi agertuko dizkizuet, gerra asi eta berealakoak. Biak Donostiakoak eta neroni lekuko nintzala.

Ona lenengoa:

Tranbia zegoen Donostiatik Loiolako kuarteletara. Soldaduz gaiñezka zijoan goizeko zortziretan. Guztiok euskaldunak eta guztiok euskeraz. Baina guztia ez zan soldaduen kaki-kolorea; bi soldadu falanjisten urdiña ere bazan. Ugalak beltzak eta gerrian pistola. Beltza ura ere, euren arpegikerea bezala.

Bi mutil gazte eta lerdanak ziran eta ikasiak ziruditen, Ikastola Nagusikoak edo... Bat-batean onela asi ziran kantari garraxi bizian:

"Los separatistas vascos
no lo pueden remediar
si se juntan tres o cuatro
empiezan a rebuznar.
La cucaracha, la cucaracha..."

Guztiok mutu. Adorerik ez bikote areri aurpegia emateko. Armak eta agintaritzak eurak bakarrik zituzten.

Eguerdian bazkaltzera Donostiara bueltatu nintzan. Alargun baten etxean bizi nintzan. Alarguna eta segururik gabekoa. Alaba bakarra eta lanik gabe eta onen senarra gerrara eramana indarrez: "al paredón o al frente". Aukera ez zan gaitza eta zalla. Gerra-muturrera... Etxera sartu nintzanean etxeakoandrea aurkitu nuen negarrez:

—Zer dezu etxeakoandrea?

Zera, ogei duro kendu didatela.

—Lapurrek?

Ez dira lapurrak izan.

Nortzuk ziran?

Polizikoek.

Polizikoek lapurretan...?

—Zigorra izan da.

Okerkeriren bat egin al dezu?

—Euskeraz egin nere anai batekin. Aspaldian ikusi gabe eta Abenidan topo egin degu. "Kaixo anai, zer moduz?" esan diotenean, an mai batean eserita zeuden bi gizon jeiki eta onela eraso didate: "No ha visto usted los letreros que dice SI ERES ESPAÑOL, HABLA EN ESPAÑOL? Ahora mismo pagará usted cien pesetas de multa. Nituen diruak kendu dizkidate. Eta, zer egin bear det orain?"

Gaur egun eun peseta edo ogei duro, ez da ezer; baina orduko duroak zillarezkoak eta aundiak ziran. Nik nere ostatua duro betekin ordaintzen nion

eguneroko iru jatordu eta loagaitik. Kontuak atera zer ziran ogei duro, eun peseta: nere ostatuaren ogei eguneko ordaina.

Kale guztiak bete zituzten errietan propaganda onekin: SI ERES ESPAÑOL, HABLA EN ESPAÑOL eta deskuidatzen zanari, zigorra.

Muestra batzuek besterik ez dira, baina giroa agertzeko naikoak. Ondorengo urte luzeetan euskera gelditu zan zanpatua, kultur-agerkundeetatik baztertua. Toki guztietan erdera: irratiak, eguneroko aldizkariak eta abar. Elizetan eta tabernetan egiten zan euskeraz egiten zana. Andik kanpora iñun ez. Eskoletan erdera bakarra.

Umeak erdal giroan ezi ziran.

1950garren urtean, ni Debara eldu nintzanean, Kristau Dotrinako umeak *eunetik* ez ziran *ogei* euskaldunak izango. Gaur, berriz, alderantziz da.

Orduko ume euskaldunak, etxean ikasitakoa zekiten; beraz, etxea ere izan da euskeraren gorde-lekua. Gutxi izan baziran ere, baziran eta gerora ere oietek izango dira Ikastolen eutsigarri adoretuak.

Gerra-ondorenak illobi baten antza ematen zuan: arrizko losa aundi bat gainean eta bere azpian euskera eta euskaldunok. Baina, eutsi genion bizirik eta apurka-apurka, zirriztuetatik arnasa artzen asi giñan. Adiñentzako euskerazko ikastaroa eman nuen eta 1957tik aurrera, umeentzako gauzez zer edo zer.

Izan ere, gauzak ez dira berez sortzen une batean eta ikastola-gosea ondoren sortu zan, 1960, Oargiren eskutik.

Oargi zer zan

Agerian lan egiteko itzal bat bear zan eta parrokiak eman zigun babes ori. OARGI Gipuzkoako Azion Katolikaren ekintza bat zan kirol eta artegintzarako. Taldea sortu genduen eta izen orrekin antolatu ginduzen Ume Euskaldunen billera bi eta ondoren iru Euskal Festa. Auetako lenengoan 25.000 persona bildu ziran Deban; bigarreanean, 40.000 eta irugarreanean 800 txapel-oker. Eta, orretan amaitu ziran gure Euskal Festak.

Bitarte orretan beste ekintza bikoitza genduen esku-artean: bata Batxiller-eskola eta bestetik Ikastola. Ura denboraz aurretik eta au ondoren. Batxillerrerako erosi genduen Ifarkaleko 12 zenbakia daraman etxea; orain Gurutze Gorria dago bertan. Etxe orretan eman genion asiera Ikastolari. Asiera oso apala. Kontxita Azpeitia andereño. Ez zan toki oso egokia.

Egun batez ispetorea etorri zitzaigun Donostiatik. Kontxita larri etorri zan neregana. Ispetoreak:

Leku au ez da egokia ikastora bat emateko, bla, bla, bla... Onela erantzun nion:

—Bai, badakit aurrek au baino geiago merezi dutela; baina, besterik ezean...

Ba, ezin liteke emen ikastarorik eman.

Aizu, Trintxerpen 400 ume dazkazue eskolarik gabe; beste onen beste ez dutenak; arazo ura konpontzen dezunean, etorri kontuak eskatzera...

Gizona gelditu zan pareta baino zuriago. Ez zan geiago agertu. 1963-64 ikastaroa zan.

1965-66 etxe orren lenengo bizitza ere artu genduen Ikastolarako.

BeIen Egaña andereino.

Gure-Kay

1955-56, gabonetatik gabonetara, urte betez, langile talde bat euki nuen lanean eliz-atzean, mendiaren egalean, zabal-gune bat lortzeko: 3502 metrokoa eta aren ondoan Gure-Kay zeritzan zine-antzokia. Gerora zinea laga eta altura-erdian solairu bat egin genion... Toki onetara aldatuko da Ikastola 1969an; baina, aurreko urtean, 1968an, Ikastola Txikia gaur dan etxe orretako gela bat ere artu genduen euskerarako.

Esan bearra dago ere Gure-Kay eta gaur Ikastola dan etxea bere iru bizitzerekin, Batxillerra erakusteko egin zirala; ez bait zegon nun ikasi inguru guztian. E.G.B. plana agertu zanean, orduan Batxillerreko Colegioan Ikastola sartu genduen.

1971 an BeIen Egañak aula berri bat eskatzen du eta etxe-bizitza bat beretzat eta beste bi andereñoentzat.

1972-VIII-10an Rafael Rodriguez Egañak eskari bat egiten digu Colegio osoa Ikastolarako eskatuz eta beste etxe-bizitza bat ere Ikastolarako geldituko da...

Ondartzako Ikastola

Ikastola aundituz zijoan eta E.G.B.ko ikastaro guziak emateko orain arteko etxea txikitxo gertatu zan... Baina nik orretan ez nuen parterik artu.

Gurasoek

Ikastolak egun larri asko izan ditu bere istorian. Eragozpenak alde guztietatik; segurantzarik ez iñoiz; lanaren eta nekearen poderioz aurrera emana... Garai erosogoak etorri ziran gerora; zeñek kontu, ordea, bitarteko lanak...

OARGI an zegoen detonadore bezala asiera-asieratik lanean; Debako Elizak berak sortutako etxeak eta zituan lurrak Ikastolari ekeiñita eta Batxillerreko Colegioa egin zuen erria... BAINA, nik azpimarratu nai nuke GURASOEN ARDURA, eurak ekarri zizkiguten beuren seme-alabak Ikastolara, onek orduan ezer asko eskeintzeko ez zuala, EUSKERA BESTERIK. Euskera, ordea, ez zuen beste inork eskeintzen. An zegoen Escuela Nacionala utsean; Ikastolan berriz ordaindu egin bear...

Alaz ere, Ikastola naiago. Naiz eta onen etorkizuna lainopean ageri, argi askorik gabe. Ekonomi aldetik, berriz, kiebra osoan.

Gurasoek jaso zuten ekonomi ori eta aurrera eraman Ikastola urte negargarri aietan. Iñungo laguntzarik gabe. Zenbat gau-billera luze; askotan tensio artean...

Lan neketsua.

Baina, adorea aundia, maitasuna aundia eta maitasunak edozer dezake. Maitasunez jaio zan Ikastola eta maitasunak eman zizkion aurrera joateko indarrak.

Irakasleek

Gurasoekin batera irakasleak.

Talde aundi bat izan da Ikastolaren oinarri eta eutsigarri.

Lan-toki segurogoak baziran baztarretan eta orduko Ikastola batean lan egiteak bazitun makina bat arrisku: alojera urri eta etorkizunerako segurorik ez... Bazirudian Patxiren erreinua betirakoa izango zala. Argirik ez tunal-muturrean; tunal orreri amaierarik ez zitzaion ikusten... Alaz ere, Ikastolara lanera.

Euskera eta aberriarenganako maitasunik gabe, arazo onek ez du esplikaziorik.

Eta, era orretara osotu zan Ikastola, orduko Ikastola: danen arteko alkarlaguntzan. Gerora gauzak aldatuz joan dira eta geroagoko Ikastolaren berri zuek dakizute nik baiño obeto.

Eranskiña: 1960'ko agiria:
6-9-1960 Euskal Ikastola

Anton Allica, Pedro Churruca, Adolfo Soto, Rosario Beitia, Begoña Andonegi ta Presentación Garata.

Gure eliz nagusiko idazgelan batzartuta, geure artean Euzkel ikastola bat eratzea erabaki degu 1960'ko Agoraren 6'ean.

Erabak-onen bidez baita, Ikastolearen Burua izendatu gendun era ontan.

Buru: D. Anastasio Arrinda

Buru-ordeko: D. Antonio Lecuona. (Iziaz)

Idazkari: Pedro Churruca

Idazkari-ordeko: Conchita Larrinaga

Diruzai: Antón Allica

Diruzai-ordeko: Mari Paz Eizaguirre

Liburuzai: Adolfo Soto

Batzarkide: Francisco Churruca, Mari Lerchundi, Mari Tare Unanue, ta Jose Mari Echeverria.


Izendatutako Burua baturik gure lenengo erabakia e iko gaztediari Ikastola ontara dei egitea izanda: ta erabaki abek aintzat artzeko idatzita azaltzen ditugu.

Deban 1960'ko agarren 6'ean.

Nota:

En Septiembre de 1960, el día 6, se reúnen para formar una Euskal-Ikastola y se nombran los cargos responsables. La reunión tiene lugar en la secretaría de la Parroquia. El secretario es Pedro Churruca que firma este acta. Este grupo forma el "OARGI", obra marginal de Acción Católica, que se encargará de esta Ikastola, embrión de la actual. También organiza las tres primera "Euskal Jaiak": 25.000 asistentes en la primera: 40.000 en la segunda y 800 guardias en la tercera.

Arrinda'tar Anes



ARATUZTEEN DEITURAK

(Aurrez esan bearrean gara lan au egiteko Juan Garmendia Larrañaga'ren "Léxico Etnográfico Vasco"- "Euskal Lexiko Etnografikoa" aztertu izan dogula, bai eta bere "Iñauteria-El Carnaval Vasco" eta "Mitos y leyendas del Pais Vasco". Maixutasuna berari).

Zenbat eta zelako deiturak daukez euskeran garizuma aurreko jai ezagunak, latíñez Carnes Tollendas deitzen diranak?

Deitura zabal bat Aragia oiñarriztat artutakoa da. Ortik aragi-uztea.

Bizkai aldean deiturarik ezagunena, Aratusteak?

Au dala ta R.M. Azkue, bere Diccionario Vasco Español'en arritu egiten da berba au Bizkaia'n entzuteagaz.

Berak diño Bizkai'ko inguru batzutan ala deitzen dala. Baiña arrigarri dala deitura ori osotzen daben itz biak **aragi** (errien baten ezik) eta **utzi, uzte**, ez diralako Bizkaia'n emengo esan naian erabilten.

Autortzen dau ez dakila nun baiña **Aratiste** entzun izan dauala eta ori Aratuste baiño bizkaitarrago dala.

Franzizko Aizkibelen iztegietan, **Aratosteak** = carnestolendas, bacanales eta Aratusteak = bacanales irakurten dira.

Garmendia Larrañaga'k bere aldetik era onetan billatzen dau deitura au:

Aratozteak	(Antzuola, Areatza, Gernika)
Aratisteak	(Oñate)
Aratusteak	(Oñate)
Atustik	(Ondarroa)
Atustiak	(Lekeitio)
Aratoztiak	(Bergara)
Aratuste	(Mundaka)
Aratuzteak	(Aramaio, Lekeitio)
Aratuztiak	(Axpe Marzana)
Aratuztiek	(Mallabi)

Ortik urtenda IÑAUTE aukeratu bear.

Azkue'k era onetan dakar: Iñaute (AN-b-lez-R) inhauteri (B N) Inauteri (G. and-bild-ori-t) = carnaval.

Berak diño batzuk itz onen esan-naia aratuzte iru egunetan mugatzen dabela. Beste batzuk Errege egun eta Garizuma bitarte guztiari zabaltzen dautsela.

Ortik Iñoteri (AN) Inauteri'ren aldakuntza lez. Iñoteriak edo Yoteak.

Aizkibelek bere aldetik beste au: Iñauteriak (Carnes tolendas, los tres días de carnes que preceden al miércoles de ceniza) Inoteria = Bacanales o carnestolendas, que se aplica a las fiestas que se hacen a Baco.

Gurean jarraituz, onelako deiturak billatzen doguz:

lautreak	(Lintzoain)
Igautrea	(Auritz)
lhauteriak	(Luzaide)
Iñauteak	(Ziga)
Iñauteik	(Mutiloa)
Iñauteriak	(Toki ugaritan)
Iñautik	(Aranaz)
Iñotiak	(Arano)
loteak	(Azkarate, Betelu, Etxaleku, Intza, Uitz, Latasa, Lizarraga, Uztegi...)
lotegik	(Areso, Leitza)
Irauteak	(Auzperri)
lyoteak	(Beruete, Torrano, Unanua)
lyotiak	(Arbizu)

Ortik urtenda, KARNABALAK deitura datorkigu eta toki askotan gañera. (Abaltzizketa, Antzuola, Arakil, Bedaio, Berrobi, Elduayen, Eskoritz, Ezkio, Idiazabal, Legazpia, Mutiloa, Tolosa, Zerain, Ziordia, beste askoren artean.

Beste toki batzutan bertako pertsonaiak dira egunei izena emoten dautsenak.

Ala

Mamu egunak.

Marro egunak...

Jai oneik iru egunetako diranez, egun bakoitzari be lotzen dira deitura bereziak. Orrela jarraian aipatzen doguzan deiturak zeaztu giñeikez.

Igandea. Domeka

Aratozte domeka	(Gernika)
Aratiste eguna	(Oñati)
Aratuzte domekia	(Elorrio)
Aratuzte domekie	(Aramaio)
Domeka karnabala	(Ziordia)
Domeka zamartxiko	(Olazagutia)
fantre igandea	(Lintzoain)
Igande Yote	(Betelu)
Igande lyotia	(Arbizu)
Igantrea igandea	(Burgete)
lote igandea	(Etxaleku, Latasa)
lyote eguna	(Arbizu, Beruete)
lyotetako eguna	(Torrano)
Mamoxarro txikien eguna	(Unanua)
Zalduñiate eguna	(Zerain)
Zaldun aratuzte	(Mallabi)
Zaldun iñaute	(Etxalar)
Zalduniota	(Berastegi)
Zaldunita	(Abaltzizketa, Alegi, Areso, Berrobi, Elduayen, Lizartza, Tolosa)

Astelena

Ara emen astelenari dagokiozan batzuk:

Asteleniñabete	(Ursuaran)
Asteleniñate	(Mutiloa)
Asteleniñati	(Zerain)
Astelen Iñautea	(Ornoz)
Iñaute biaramona	(Ornoz)
Asteleniota	(Berastegi)
Asteleniote	(Betelu, Uízi)
Astelena	(Abaltzikketa, Alegi, Areso, Berrobi, Elduayen, Lizartza, Tolosa)
Astelen Iyotia	(Arbizu)
Astelen iñautea	(Ornoz)
Iñaute biaramona	(Ornoz)
Iote astelena	(Etxaleku, Latasa)
Irauteko astelena	(Auzperri)

Astearte Martitzena

Erreskada luzea dauka egun onek deitura berezietan.

Ikus batzuk:

Aratuste manga	
Aratuste Martitzena	(Elorrio)
Astearte igautrea	(Burgete)
Aste urteiñate	(I diazabal, Mutiloa)
Astearte iñautea	(Elizondo)
Ondar eguna	(Elizondo)
Astearte iñaute	(Ezkio)
Astearte iote	(Betelu)
Astearte iyote-eguna	(Beruete)
Astearte Iyotia	(Arbizu)
Astearte karnabal	(Ziordía)
Astearteñota	(Berastegi)
Asteartiñabete	(Legazpia, Ursuaran)
Asteartiñati	(Zerain)
Asteartiotiote	(Leiza)
Astearte	(Abaltzikketa, Alegi, Bedaio, Berrobi, Elduayen, Lizartza, Tolosa)
Astiarte iyotia	(Iraizoz)
Astiarti iñautia,	(Aranaz)
lautre asteartia	(Lintzoain)
Igautre astearte	(Auritz)
Iñaute irugarrena	(Ornoz)
Astearte iñautea	(Ornoz)
Iñauti Motx.– Astiartia	
Iñauta. Master eguna	(Aranaz)
Iote eguna.	(Lizarraga)
Irauteko astearte	(Auzperri)

lote asteartea	(Etxaleku, Latasa)
Yyote eguna	(Torrano)
Kaleko ogi eguna	(Ezkio)
Kausera eguna	(astearteko postrea) (Luzaide)
Ondar egune	(Elizondo)
Torrada egune	
martitzen Aratuzte	(Aramaio)
Turuturu eguna	(Lekeitio)
Mamoxarro aundien eguna	(Unanua)
Martísen aratiste	(Oñati)
Martísen karnabal	(Antzuola, Markina, Ondarroa)
Martizen aratuztia	(Axpe Marzana)
Martizen aratuztie	(Mallabi)
Martitzen karnabal	(Areatza, Lekeitio)
Master eguna	(Aranoz)
Zaldiñabete	
Asteartiñabete	(Legazpia)
Zamar aundi	(Olazagutia)

Jaietako pertsonaiak

Ezin ukatu ainbeste jai izenek, beste ainbat pertsonaien izen, deitura edo ta ezaupideak eukiko dituenik. Batzutan deitura orokorrak, bestetan lekuan lekuko.

Aitandi - txarku - Ustarroz	(Gigantea)
Bolantak	(Luzaide'ko dantzariak)
Damalayak	(Etxalar)(Egun batetik bestera jantzia aldatzen eben dantzariak)
Damuñ-etxeakoandrea	(Arizkun Txistulariak afaltzen eben ostatuko etxeakoandrea)
Gorria	(Luzaide) (Atxotalupiñak taldeko bat)
Ijito moxorroak	(Iturmendi)
Judas	(Arizala. Martizeneko txontxongillua)
Kain	(Gesaltza. Martizeneko txontxongillua)
Kakarrero	(Antezana)
Kakarro	(Amurrio, Zanbrana)
Kantineira	(Zuberoa)
Kantiniersa	(Zuberoa)
Kapitana	(Antzar jokoko burua. Añbe, Atallu, Betelu, Errazkin)
Katamaloa	(Legazpi)
Katxi	(Apellaniz, Atauri, Azazeta Kanpetzu...)
Katxibulo	(Maeztu)
Katximorronek	(Kanpetzu)
Katximorros	(Baroja)
Katxirulo	(Galbarra, Kanpetxu, Birgala, Zuñiga). Katxirulo, tio Pako, tabakorik geio ez erreko.
Katxis	(Ume mozorrotuen deitura. Kanpetzu)
Kauterak	(Galdaradunak. Zuberoa)
Kerestuak	(Zikiteruak. Zuberoa)
Kokomarroak	(Aramaio, Areatza, Elorrio)

Kokotxak	(Markiña)
Kokuek	(Axpe, Mallabi)
Kukulleruak	(Zuberoa)
Kukumarroak	(Aretxabaleta, Bergara, Eskoritza Gatzaga) (pertsonaiak)
Landarra	(Arakil)
Lasta lazaru	(Edozela marrotutako bat (Urdiain))
Makarrero	(Leziñana)
Mamoxarroa	(Mamo jantzitakoa)
Manixalak	(Zubero'ko maskaradetan ibiltzen diran erramentari jantzitakoak)
Maretxalak	(Goikoaren bardintzu)
Markitos	Zalduendo'n erre egiten dan txontxongillua
Marmoa	(Aratustetako jantzi edo mozolotutako norbait. Lekeitio)
Marroa	(Ala deitzen dautse Gernikan egun onetako jai zale marrotuei)
Marrua	(Mundaka)
Miel Oxin	(Lantz'eko iñauterietako pertsonai ezaguna)
Mitxilarga	(Lezaun)
Momoxarro	(urdiain)
Momoxuerre	(Torrano)
Momuxarro	(Urdiain)
Moxorro	(Ekai)
Moxorroko	(Arakil)
Mozorroa	(Toki askotan erabilten dan deitura ezaugarria)
Mozorro beltza	(Aranoz)
Mozorrotua	(Mozorro jantzi eta iruditutako edozein)
Mozorro zatarrak	(Andre jantziz ibiltzen diranak. Idiazabal)
Mozorrua	(Lizarraga)
Muttuak	(Ustekabe eta edozelan mozorrotuak. Unanua)
Muzizarko	(Mozorro jantzitako bat Auritz)
Ninia	(Aratuztetako txontxongillo bat. Yabar)
Porrero	(Toki askotako deitura)
Sapurrak	(zuberotar maskaradetako "gastadoreak")
Toriko	(Marrotutako bat. Otsagabi)
Soiñujotzailleak	(Urda)
Ttuntturroak	
Joaldunak	(Ituren)
Txantxoak	(Bedaio, Berrobi, Elduayen)
Txatar jantzia	(Arbizu)
Txatutuak	(Balzar jantziak)
Txatxoa, txatxua	(Lanz)
Txerrero	(Zuberoa)
Tximiñua	(Antzuola)
Xomorroak	(Irañeta Zumaia)
Zaldidunak	(Lizartza Zaldietan jaia eratzen ibiltzen ziranak)
Zaldiko	(Lantz)
Zamalzain	(Dantzaria. Zuberoa)
Zamarra, Zamarrero	(Mozolotuak)
Zanpantzar	
Zapurra	(Dantzaria. Luzaide)

Zarramokero	(Trebiño)
Zarratrako	(Mozolotuak. Burgete, Isaba)
Zipotero	(Burgi)
Ziripot	(Barregarri, Isaba, Lanz)
Zomorro	(Mozolotua)
Zomorrotuak	

GAIKIAK

Pertsonaiekin batera, kontuan eukiteko dira baita be bakoitzak erakutsi edo erabili bearreko gaiiak. Onetan askatasun osoa erabilten ekian bakoitzak, pertsonai jator jatorrak izan ezik.

Ara Gaii batzuen izenak:

Kamantxila	(Kanpai txiki, txilin, kaskabela)
Karatola	(Kareta. Unanua)
Karatula	(Ziordia)
Karatulia	(Olazagutia)
Kareta	(Salinillas)
Katula	(Urdiain)
Kaskopil	(Opil zatia)
Kerren	(Ilgandez eskean urteten eben mutillak eroaten ekien erretoko edo sutako burdiña, urdai eta lukainkak bertan sartzeko. Erro, Larrasoaiña)
Mandarra	(Luzaide. Zapurrak erabiltzen daben amantala)
Mantarra	(Idiazabal. Mozorro zatarren jantzia)
Mantoia	(Abalziketa)
Pella	(Aratustetako postrea. Oñati)
Kausera	(Asteartean jan oi izan dan gozo bautu bat, aizetsua) (Luzaide)
Piparopillak	(Erroskillak. Betelu)
Polunpa	(Ituren. Arrana)
Sorgin goaiziak.	(Guraizak. Artaziak. Oyartzun)
Taratula	(Maskara)
Tokara	(Erreten ziran mozorroak lotzeko soka lodia)
Torrada	(Ogiz nai aiez egiñiko gogo)
Ttuntturro	(Buruko koniku bat)
Txanbarrada	(Laruzko lepoko apaingarria)
Tripaki zopa	(Atallo. Errazkin)
Tripotxa beltza	(Atallo)
Tripotxa zuria	(Atallo)
Txarri anak.	
Txarri belarrik	
Txarri muturrak.	(Jaietan eskaleei eskintzen ziran gaiiak)
Txistorrak	

JAIK JAI

Onetan erri bakoitza zelako, jaiak alako. Gero ta erraztasun geiago ta gero ta jai aberatsago.

Alaz eta batzuk gogoratu bear:

Akularen illeta	Martizen gabean, aratuste jaiak amaítzean, azken urteotan Akula (arrain) luze baten irudia eroaten da Zubi-zarrera, eta bertatik errekarra jaurti).
Axeta tupin, Axeri ta tupin, Axeri bes Antzar jokoa	Luzaide'ko jaiaren deitura. Markiñan, len kale zar baten, orain pelotatoki aurreko ibilbidean, antzarrak eskegiten dira eta zaldi gañetan joaten dira gizon nai andrazkoak eurak iltzera.
Estudiantina	Lekeitiarren jai polita, kantu alai eta pozgarriekaz.
Kakoillatzea	Maskarada dantza.
Karakotxa	(Luzaide. Maskarada)
Lau-ostiko dantza	(Lizartza. Dantza berezia)
Lenengo habanera	(Tolosa. Oituraz txistulariak jotzen dakien jai asierako habanera)
Leenengo idiyarena	(Aurrekoaren antzera)
Mañane	(Zubero'ko maskaradetako dantza)
Mutiko dantza	(Etxaleku)
Polka	(Tolosa'n oituraz jotzen dan eresi bat)
Sardiña eortzeta	Jaien amaieran egiten dan eortzeta irudia)
Seigarrena	(Dantza bat. Lizartza)
Soka dantza	Dantza-soka. Igande, astelen eta astearte arratsaldetan dantzatuten zan. Berastegi)
Soka-muturra	(Kalez kale zezena erabilteko oitura. Bergara. Tolosa)
Zagi dantza	(Erri askotan ezaguna dan dantza).



Zubikarai'tar Augustin

GAZTAÑAGA'REN OROIZ

Aldizkari au irarkolan sartuta egoala, dei bat: EUSKERAZAINTZA'n gure batzarkide eta oraintsuarte idazkari izaniko Jesus Gaztañaga, Tolosa'ko eritetxe baten illik egoala, bat bateko biotzaren makaltasunak arnasa galdu eraginda.

Orrelako bat-bateko deitura eta usterik gitxieneko albisteak zein mindu ez?

Bost egun aurrez alkarrekin batzartu, luzaro jardun eta bazkaldu gendun, ezelako min eta aitzaki barik, eta zelan ori?

Lenengo makurpena gaindu eta bereala asi nitzan ain zuzen be Jesus berberak idatzitako "Jesusen billa" liburuaren billa. Eta zurbil, naigabez, eta begiak malkoz lausotuta, eriotzari buruz berak zer Idatzi ete eban billa asi naz.

Eta bere gaietan, ortazko gaietan, oneik billatu: "Bildurrez aaztu egin nai". "Gurutzeko eriotza". "Guk ezin oinperatu eriotza". "Gizakiok eriotzaren alde. Eriotz ondoren gu ta gure egiñaalak zer?" "Eriotza baiño Jesus indartsuago". "Eriotza ta ilketak". "Eriotz ordurako zaindari, Jose donea...".

Bat azaletik irakurri, bestea gero, ta asiera lez azkenean be egia: Nigan sinistuten dauana illik ere biziko da.

Zuk, Jesus, Beragan sinistu dozu ta biziko zara. Guk zugan sinistu dogu ta gugaz biziko zara.

Ba dakigu gizartearen alde zenbat lan egin dozun. Ba dakigu Euskalerrriaren alde eta batez be Euskeraren alde zenbat alegin.

Zure-zure zendun eroapen alaitsu ta borondatetsuz zure kontu eta zure lepo artzen zenduzan Euskerazaintza'ko ibili bearrak eta zabalkunde lanak.

Zure kontu Elbire Zipitria andereñoaren omenezko urteroko leiaketaren erakunde, azterketa eta jai gertaerak.

Zure kontu, baita, eta egunotan epaitu ta sariak banatu bear ziralako karteran zerabiltzuzan, Napparroa'n, Garde tar Martzeliño'ren omenezko leiaketarako ikastoletako umeen artean egindako lanak eta ango antolaketa.

Zeregiñez beteta aurkitu arren, pozik eskintzen ziñan orrelako lanetarako, orretan glzon banakak, aukeratuak eukiten daben sena zendulako.

"Goiz Argi" argitaratzen asi ziñatenean, zenbat amets eta zenbat egitasmo bero eta azkenean, oraiñarte euskal lan ugarietan antzera, banan-banan sortzailleak sakabanatzen edo aspertzen astean, zu bakarrik geratu ziñanean, zenbat atsekabe eta estutasun, lanari eutsi nai ta eutsi eziñez, une baten orrelako eskintzak bear aiñako laguntasunik batu ez eta eukiten ez ebelako. Eta azken baten dana diru kontu biurtzen dalako. Eta ala ta guzti ere etsi nai ez, estutasun eta lotsari guztiak euskeraren onaren alde eskeinuta.

Eta ikastolen erakundetan be sartu ziñan, or ikusten zendulako euskerarentzako bide barri zabal bat. Batari arnas emon, besteak adoretu, beste askotan zure espiritua irarri.

Ez dagokit apaiz ikusmiñez epaitzerik. Ori Jaunaren eskubidea da.

Baiña euskera kontuan ezin ezetara ukatu zure jakituri, borondate eta alegiñak gure izkuntza zar oneri eskeiñi dautsazunik.

Joan zara. Agurrik ere egin barik. Iñoiz orrelakorik sumatu be eragin barik.

Ori gure atsekabea.

Oraindik gazte ziñalakoan. la 59 urte bete barri. Irurogeira eltzeko beste amar illabete luze bear.

Esaera zar eta ezagun batek diñona, beste batzuen antzera, egi biurtu dozu: Goiz il ba zara ere, denbora asko ondo beteta il zareala.

Egun andirarte!

Augustin

ADISKIDE BATEN AOLKUAK

GAZTAÑAGA'TAR JESUS'EK

Jakitea, gai ta alor guztietan asko jakitea, guztiz atsegin zaigu. Baiña asko ikastea ez zaigu ain atsegin, geienetan neketsu ta oso zait gertatzen zaigulako noski. Asko ta erraz ikasi aal izateko, ordea, garrantzi aundikoa da galdera au: Nola ikasi? Erantzuna aurkitu duanak, nola ikasi dakianak, ikasten ongi ikasi duanak, gainditurik ditu zailtasun eta eragozpenik latzenak.

Edozein irakurleri kalterik ez diote egingo, eta mesederik aski egin dazaikete, berriz, ikasketak burutzen ari diran gazteei. Or dijoazkie, bada, arau egoki batzuk beren ikasketarako lagungarri, adiskidekiro emandako aolkuen erara jarrita.

1. Aldez aurretik egizu eguneroko lan-eraketa bat.
2. Beti toki berean eta ordu beretan ikastea, oso mesedegarria da.
3. Gai berri bat ikasi aurretik, gai berari dagokion beste zerbait ikas-berritu ezazu lenengo.
4. Egiñaalik eta denborarik geiena, opa ezaiezu gairik oiñarrizkoena.
5. Ikas ezazu beti "eginkorki" eta ez jasankorki edo arduragabe; au da, aztertzaile ta ekintzarako lan biurtuz zure ikasketa.
6. Ideia nagusiak azpimarratu itzazu txukun, eta egitzazu laburpenak egoki lerrokatuz, au da, jarraikeran edo urrenez-urren eratuz.
7. Itzez-itz ikasteko, bearrezkoenak bakarrik naikoa zaizkizu: urte-egun edo urtemuga, definizio ta formula batzuk adibidez.
8. Ikasitakoaz gain, egizkiozu zeure buruari galdera batzuk, eta gero erantzun zerorrek liburuaren laguntzarik gabe.
9. Gai bakoitzeko puntu oiñarrizkoenak gogoratu itzazu etengabean.
10. Ikasgelan artu ditzuzun oarrak, berritu itzazu bereala, ideiak era egokian jarri ta zalantzak argitu ditzazun; eta ikas-liburuaren bidez naiz beste libururen baten laguntzaz osotu edo aberastu aal izateko.
11. Ikasi duzuna, saiatu zaitez gero ekintzara eramaten, au da, egiazko egoera naiz bear batzuetara eramaten: ikasteko ta benetan gogoratzeko biderik onena duzu.
12. Benetan nekatu aurretik, obe duzu atsedeen-aldi bat artzea.
13. Zuk zeurez egin bear duzun eta dezakezun guztirako, laguntzarik iñori ez eskatu.
14. Ikas ezazu egunero, eta beti ordu jakiñetan.
15. Egizu ikasketa-araudi edo ikasteko egitasmo bat, bere ordutegi ta guzti, baiña benetan betetzeko, itxura eder utserako ez.

Orra or euskeratuta eskeiñi ikasle euskaldunen serbitzurako, mesederik aski egin dezaieketan aolku-zerrenda bat. Gauza on guztiak geurok asmatu aal izango ditugulakoan ibiltzeko ordez, obe da noski, bestek aurkituak geureganatzea, aietaz leialki baliatzeko. Orrela, aitor dezagun bada, gazteentzako dan Telva aldizkaritik artu ta euskeratuak dirala.

Gastañaga'ren duintasun bat erakusten du lan onek. Lan eta ardura ta zeregiñez ittota ibili arren, ezin geldi egunkari eta aldizkarietan euskerari tartea billa gabe. Bere omenez sartzan degu zenbaki onetan, El Diario Vasco'tik artuta.

ERIoTZA TA ILKETAK

Mutil, zuri diozut: jaiki zaitetz!

Lk 7, 11-17

Gure izatea neurtua dalako, gure burua ta bizia gureak ez diralako, geure biziaren jabe ez geralako, bizia bestek emana dugulako, egunen batean eriotza etorriko zaigula, badakigu guztiok; zalantzarik gabe, jakin ere. Ain zuzen, jaiotzeak iltzea zor bai-du, gizakion izate-lege ortatik ezin iges egin dezake iñork, ez gaur eta ez biarko geroan.

Gure mundu-aldi ontan gero-ta ugariago gertatzen dira, garaiz-leen edo ustekabean eriotzak gure artetik eraman dituanak: au da, laneko ta ibillietako ez-bearrez joanak, alegia. Eta bai naigabe aundien iturri gertatzen zaizkigula!

Bestelako eriotzik ere bada, ordea, gizakion zoritxarrez. Batetik, gosearen gosez illak eta gudaldietan bizia galdu dutenak. Eta bestetik, indarkeriaz, milla eratako izkillu edo armen erasoz, biziaren aria eten dietenak: bizirik bear zutenak, bizia zor genienak dira, baiña... Zer erru ote zuten? Baiña bai al da errurik, bizia ordaiñetan eman bear izateraiño irixten danik? Ez eta ez! esan bear dugu buru-biotzak elkarturik.

Eta zerk ekarri ditu ilketak? Aserreak, gorrotoak, politikazko itsumenak, gizartea gorroto-borroka agindura antolatu nai izate okerrak... Oiek dira indarkeriazko ilketak ugaritu dituztenak. Beste errialdeetan bakarrik ez, gure artean ere bai.

Onelako ilketen ondorioz sortzen diran atsekabe, oiñaze ta biotzeko zauri sakonen miñak, nork neurtuko? Alargunaren seme illa piztea, Jaunari otoitz egiñez lortu zuan Elias'ek. Ama alargunaren naigabe ta negarraz errukiturik, semea piztu egin zion Jesus'ek Naim errixkan.

Iñor pizteko aalmenik ez dugunok, zer egiten dugu !lketen aurrean? Ez al gera oitu? Garrantzirik eman gabe, lasai ez al gera gelditzen bakoitza bere txokoan? Bizia balioa, nola neurtzen ote dugu? Geuretarrena ba'da, gauza aundizat jo, eta bestelakoena ba da, uskeria bai'litza zokoratzen ote burutik ere? Bizia, edonorena ere, bizia da. Gora bizia!, oiukatu bear genuke.

Ilketak dirala-bide atsekabetuak, zer? "*Erruki izan zuan Jesus'ek*" Ebanjelioak esaten digunez. Eta errukitzea ez da kaxkargarri izan, ez Elias'entzat eta ez Jesus'entzat. Buru ta biotz aundikoen aalmen edo trebetasun bikaiña da errukitzea. Baiña bai zaila dala benetan errukitzea, biotz txiki estuentzat!

Biziaren aldeko erlijioak eraginda, naigabetuenganako maitasun-aginduak bultzata, joka dezagun borroka kementsua, ilketen aurka ta biziaren alde. Eta beti adiskidekiro arrindu ditzagula biotz urratuen oiñaze sakonak, errukiaren agerpenik ederrena bai-da.

Lan au, Jesus Gaztañaga'k orainduk urte bete ez dala idatzitako `Jesusen billa" liburutik aukeratu dogu.

Eriotzari eta ilketei buruzko irakatsi sakona danik ezin ukatu.

"gure mundu-aldi onetan gero ta ugariago gertatzen dira, garaiz-leen eta ustekabean eriotzak gure artetik eraman dituanak..."

Nok esan orixe berori berarekin gertatu zitzaigunik

J. Gaztañaga

GAZTAÑAGA TAR JESUS

Bertsolari, sermolari ospetsu eta euskal zaleen arrobi dan Asteasun jaiotzan Jesus Gaztañaga eta Garmendia, 1932'ko gabonilla'ren 2'ean.

Apaiz ikasketak amaitu ta laster asi zan idazten. Bere deiturak, izenordeak, "Ertziñape" eta Aizarna-zale" ta abarrek ba dute zer ikusi nundik ibili zan ezagutzeko.

Euskal giroko aldizkari ta agerkari askotan idazten alegindu eta zaletu zan.

Ala "Euzko Gogoa", "Jakin", "Zeruko Argia", "Laiaketan", "Olerti", "Karmel", "Agur", "Zer" eta abarretan.

Lenengotan naiago izan zuan besteen lankide agertu, nai ta lanik geienak bereak izan.

Ala "Jainkoaren erria eta Eleiz Misterioa" Zabaletakin batean, bai eta Aladino eta "Las Aventuras del baron de Munchausen" en Etxaniz'ekin batean.

Orañarte kaleratu izan diran "Euskerazaintza'ren aleetan, ainbat lan idatzia da, azken denboretan "Akatsak eta erderakadak" aztertzen.

"Goiz Argi" sortu zanetik bere ardurapean euki zuan, eta gero, bakarrik geratu zanean, esateko bere lepoan.

Gipuzkoa'ko egunkarietan sarri agertu ziran bere lanak, bai La Voz'en, bai eta oraintsuago "El Diario Vasco"n.

Eta azken urtean "Diario de Navarra"n ere idazten asi zan, beti ere erri-euskerari eutsi eta bere idazlanetan onren egin naian.

Errezil'go parroko izanik ezin bertako santu jatorrari onren egin gabe gelditu ta berari zor diogu Erkizia'tar Domingo martiri eta santuaren bizitza.

Zortzi illabete dira liburu mardul bat argitaratu zuala "Jesus'en billa Iganderoko gogoetak" deiturarekin, apaiz izatea eta sermolari jatorraren sena agertuaz.

eeee

Setien gotzaiña buru zala, eleiza betien bete, ospatu zan bere illeta otsailla'ren 1'an, Errezil'en.

Jarraian agertzen diran bertsoak, Paulin Solozabal Bizkai'ko Laukariz'en abade jator izanak, Errezil'go parrokan, Jesus'en illetan abestu zitunak dira:

Asteasuko seme argia,
doai ederrez jantzia,
gizon ta kristau eta abade
osotu dozu koroia;
Euskal-errira begira beti,
jokatu dozu bizia,
gure lur ontan, garbi itxirik
egiaren irudia.

Danetan eder agertu zara
gizon langille, egitan,
zure apaizgo zoragarria
ondo orniduz lanetan;
Itz eta Egi ziran gidari
zure egungo lanetan,
eskerrak, lagun, Jaungoikoari
zure egintz bikaiñetan.

Zuri begira aurkitzen gara
barne miñez ikuturik,
baiña fedea danez gaiñetik
maite dogula bizirik;
santu guztien alkartasunak
zeru-lurrak alkaturik,
goratu daigun Euskalerra
zeru graziz argiturik.



GOI-YAKINTZA'RUNTZ URBILTZEKO NAYEAN EUZKERAZ EGINDAKO URATS TXIKIAK. AYUF^AIA

Ayuna. Zer ote da ayuna? Apika egokiagoa edo izan bear zer ez ote dan esatea. ()hald auetan barna, orain arte, geron baitan dauzkagun menak izan dira gayaz erabili ditugunak: adimen, oldozmen, oroimen, eta beste onelako batzuk. Ba ote da ayuda beste men bat? Ez orixe, naiz eta ayuna geron baitan bizi, ayuda ezta benetan men bat. Orduan zer da?

Ez bide da eraz ayuna, itz motz batzuen bitartez, zer dan esatea; noredonoren izatea adierazteko zer bait dala dirudi, izateko era edo ta arazoa nolakoa dan zeatzago esateko, auxe esan genezakelakoan gagoz: Ayuda, biziaren eta biziak so erazten dituen azpegi, ebazkizun, bideak eta abañen au ean gizonak nola erantzuten duen edo bere jokera nolakoa dan erakusteko, era berezia edo da. Beraz, eztago ayuñ bat gizaki guztiai dagokiena, ta eskier esan deza-kegu gizon ainbat ayuñ dagoela, gizon bakoitzak berea duelarik.

Era berean, mota askotakoa izan bear ayuda, ta san aipatzen dira: ayu ona, ayu txa a, ayuñ aundikoa, ayu aula, aiko-maiko ayuda, ayuñ aroa, ayu erabea ta abar; eta bakoitzean gizonaren jokera azaltzen da garbi. Gaiñera, mota oyetako edozein, bat eta bestea, iraunko a da bera duen bakoitzaren-tzat; ba-dirudi lenengo urteetan erazten dan ayudak norberaren bizi guzirako iraungo duela, ta ez bide da eraz ayuñz aldatzea.

Ayuda ez bide da sortzen bakoitzaren baitan onen jayotzean; ayuna bizi-izate-an, biziaren ja aitzean erazten da, alakotz nolako lenengo bizi alako ayuda ger-tatuko da bein eta beez, eta o engatik egokia izango litzake gurasoentzat eta azleentzat aur edo gaztea bizi-giro egokian aztea, bakoitzean ayuñ egokia eratur izan dedin, onezaz bete gogoratzean: lenengo urteetan bereganatzen dan ayuna geyenetan berbera izango dala gerokoan, ori aldatzea oso zalaa izango dalako.

Alakotz, ayuda nolabait eratu-erazi diteke naiz eta berez be ta ezer egin gabe agertzeko ta norbaitengan kokatzeko izan; ta geyenentzat auxe da ger-tatzen dana, ayunaren aztea, geron gardiz, gutxitan egiten dalako; o engatik oso egokia dirudi ayunad norabide egokia emateko alegintzea, ta lan au gura-soentzat eta irakasle ta azleentzat dagokiela onartzekoa da. Auxe irazkintzaren azpegi egokia dalarik.

Ayudan buruz orain arte esan dugun guztia gizonari dagokio bereziki; baña Eri bati buruz ere, guziaz batera dagokien arauz, ayuñña be izaten da; ta Eñ baten ayuda begiratzen da beti, dalako Eñia aztertzen eta ikuserazten danean; ez da ori zeatzez zedadtuko, gizonarenaz yarduten dan bezela, ereza izango ez dalako, baña neuñ batean bederen Eri baten ayuda ere aztertu diteke; bai ta mail goragokoan gizadiarena ere; beraz, e uz eta zabalik ager dakiguke ayudaren azterketa.

Ayuda, noski, gure ta edonoren baitan ikusiko dugu bizi ta jokatzean, guregana iñoiz igaro eziñean; aitzitik, ayudaren ondorioak gure baitan eta guregan gertatzen dira, ayu iak berak eragiten duen arau ayu iakeragire bezela sari jokatzan duelako; orduan bi era auetan begira dezakegu ayuda: gertapena bezela iragangaitza izango bailitzan eta eregitean iraganko a lez; izan eta egin edo eragiten ari-izatean; ez da, alajaña, estu ta labur ayudaren edatzea.

Garantzi aundia, benetan, ayu ta bere ondorioetan, batez ere len aipatu dugun azieran begiratzean; ontaz ayuñ on eta sendoa eratze ororentzat elburu beñena izan bear, ongi jokatzeko ta ondorio onak burutzeko, bietan egokienezakoa izango dalako, ta o elakoa izango da gizonarengandik batik bat egipen on eta ondorio obeak lortzea bidezkoa izan dugulako; ta beste ayuñetatik ezta gauza aundirik lortu al-izango. Ora arazo au erabiltzeko dugun ga antzia nolakoa dan.

Ayuda beti gizonaren baitan ari da, bera danaren arauz; ayuñ gogo ak, eiki, egipen aundi edo gotorak egitera darama gizona; ayuñ aulak, ordea, egipen motzak egitera, bai ta saritan sorayokerira ta barkerira ere; mota guziko ondorioak ayu iak emateko, bakoitzean azaltzen dan bezela; o engatik azi ta ezi be egin bear da ayunaren ondorio on egokiak lortu nai baldin badira. Beraz, ayuda eratu diteke gura dedin legez eraginko a izateko. Garantzikoa da berez ayuda, baña garantzi askoz aundiagoa izan diteke bera nola eratzan dan arauz.

O elaxe naiz gurasoek naiz irakasle ta azleek, seme edo ikasleen baitan eragiteko, ayuda eratzean izan dezakete bide egokia berena onenetakoa burutu al-izateko; irudigileak bezala jokatu dezakete giza-irudi ede a lortu al-izateko; baña, esan dugunez, ayuda azi ta ezi egin ditekela gogoratzean, e azago ta egokiago ere izan diteke azitzea ezitzea baño, ta lenengoa izan bear beti aleta aundiago egiteko, ezitzea, jakiña, beti gauza zalagoa izango dalako. Alakotz, a ezi baño garantzi aundiagokoa izateko.

Bizian barna izan diran gizon aundiak, egipen aipagañak burutu dituztenak, ayuñ goto en jabe bezela agertu dira ta, ain zuzen, ayu oyen esker egin dute beren lana, guziek. Ayuñ aula izan dutenek, alderantziz, ez dute lortu aintzakotzat artzeko izan dan ezer.

Ba-dago ayunaren antzekoa dan beste zerbait, baña egitan ayuda ezтана; seta, setasuna izan ditekena ta orduan gauza ona dana, ta setakeria ere, arbuyatzekoa dana; ta o elakoak erakusten dituztenak, setatsuak deitzen ditugu lenengoak eta setatiak biga anak.

Gizonen baitan ayuiak besteenganako begikoak izan ditezke batzuetan, eta besteetan ez, naiz berez goto ak ala aulak izan; orela izateko alaz ere ayu oyek izatean iñoren e urik izan gabe, ez eta besteen jokeran be; ori alka enganako aremanatan berez edo sortzen dala esan bear.

Alakotz, azpegiak ugari ayuda begiratzeko agertzen diranak; baña guzietan ayuñña bera geratzen da bakoitzaren nolakotasuna bezela, bakoitzak bere bai-

tan eratu al-izan duen legez; eta o engatik ere ayuña eta atzekoa dan ga antzia nolako aundia dan oartzeko dugu guzientzat, gurasoentzat eta azleentzat, seme ta ikasleen baitan so erazteko edo eratzeko, ta auentzat beren baitaratzeko ta gero yardutean bide egokia eukitzeko.

Gizonak taldeetan bildurik, Eh bat osotzean azaltzen diranean len esan dugunez, ororen ayuña ere izan dezakete, baña guztiena bezela ager ditekena, eziña edo da atontzeko edo eratzeko; ori talde edo Eñ bakoitzaren biziaren zear berez apika sortu bear-izango da. Ta ausaz gizadi osoaren ayuñaz be nolabait itzegin genezake, gizon guziaz buruzkoa izango zana.

Esan dugun guziagatik ondorio au sortu al dezakegu: Eragin ditekenezkero ta gizonaren azitasunari dagokionez, ayu ia irakaskintzaren zati bat bezela begiratzekoa da, irazkintzaren azpegi berezia legez, ben-benetan azpegi oso ga antzitsuaz agertzen dana; o engatik eta guztien aldetik oso aintzakotzat artu bear dana.


O elakotz, naiz gizonarentzat naiz E l'entzat eta gizadi guziarentzat oso ga antzitsu ta onuragaña izango da beti ayuña alik eta ondo enik eratzea, irakasle ta azle guztiak ere ortarako beren burua gertu egin bear dutelarik, eratzeko edo norberaren baitan, ikasle bakoitzaren baitan so eratzeko.

Eta gizonaren baitan eratuko dan ayuña, berarengan ere, erapenen eta jokeraren bidez agertu bear-izango da besteen au ean azaltzeko, oyekin izango diran a emanetan, eragiten beti, yarduteko. Aintzakotzat artzeko, egiz, ayuña, bai ta bera eratzea ere, bere ga antzia ain nabaria izanik.

Gizonak berak ere, o ezaz bear dan bezela oarturik, alegiñak egin ditzake bere ayuña eratzeko, bai ta, agian, aldatzeko be, naiz eta bere ayuña lortu ondoren, ori oso zala izan. Dana dala oso bidezkoztat artu bear da gizonarentzat bere ayuña eratu, zaindu ta sendotzea ere. Gizonak, gizon izateko, bere nortasuna burutu bear du ta ortarako bere ayuña tinkotzea ezinbestekoa bezela onartzea be beara izango zayo.

Gizonaren baitan ayuña jokera bat da, oso berezia dan jokera berarekiko ta besteenganako ari bear dan jokera, on ala txar izan ditezken ondorioen ituña legez begira dezakeguna. O engatik bera ongi eratzea elburu aundi ta guztiz ga antzitsua bakoitzarentzat eta ororentzat. Bai tezpadakoa, bai, bizian barna ari-izateko, ayuña aintzakotzat artzea ta berari buruz a eta aundienaz yardutea.

U estarazu'ta Andoni



"UMANDI"ren EUZKAL-ELIZTIA Euskeraz idatzita

Urreztarazu'tar Andoni'k egiña eta "Kardaberaz - 4i, eta Gasteiz'ko Eset argitaletxeak argitara emona. 1989. 970 orrialde.

Leendik ere, leenen argitalpena, erderaz, 1955'garren urtean izan eban, 626 orrialde, Zarautz'eko ltxaropena" etxean egiña. Ba-dau bizkaieraz be. Askok eta askok elizti edo gramatika onetatik ikasi eben euren euskera ederra.

Eta orain axe bera ez, baiña antzekoa, osotua, ugaritu, edertu eta aunditua euskeraz eskintzen dausku. Urreztarazu maisu karrera egiña da. Nik kartzelatik urtenda laster, 1942'antza ezagutu neban Gasteiz'en; orduan ere nebarreba biak euskerazko klaseak emoten ebezan, eta arrezkero guztian orretan jardunak dira. Gero, Eibar'en, 1955'an, aren gramatikatik emon oi nebazan euskerazko klaseak. Eta azken urteotan euskeraz erakutsi eta idazteari txit emonak daukaguz biak.

Bere eliztia osatzeko oraiñarte agertu izan diran gramatkarik baliotsuenak esku artean izan ditu, elizonetatik agiri danez, Azkue eta beste batzuk buru garrantzitsu dirala; ots, gerra aurretik eta ostean, euskal errian ortzaz idatzi dan guztia irakurri eta aztertu izan dau bere gramatika biribiltzerakoan.

Ikaskaika dago gertatua, Eun eta larogeta zazpi guztira. Gai bakotxean zeze dakar bakotxari dagokiona ulerterrez eta egoki jarrita danak, euskal gaietan maisu danaren eskua agertzen dala.

Ona luzatu bage, eliztiaren aurkibidea, berak dakarrenez, abezeren jarraika:

"Abezea, aditza, a itzaren esanaya bestelutzen duten itzak, aditz-izen-orea, aditz-ezenen alkarkizunak, aditzondoak; adi-yaberik gabeko adizkiñak, agerretzakoak; alkarrekikoa, alkarren zentzunkideak diren atzizkiak, almonera, "arte" ta "alde" izetzen zentzunak asteko egunak, atzerako itzak, atzizkiak, aurrizkiak, "au" ta "ori" agererezleen zentzu berezia; askar... Bakar... baldintzakoa, baiyetzakoa, bikondeak, elizti-kundea, erdizkiak, "ere", bere erabiltzea, erkatzea, esakuntza nagusia ta mendekoa, eziñera, galdekizuna, galdetzea, galdetzekoak... Galdetzekoen eratorritakoak, geigarriak, gutxigarriak, itz-elkartea, itzen motak, izena, izen-jokoa... Izenondoa, izenordeak... Izkiak, izkien aldatzea, kundea, lenengo asmo ta esan-nayak, Lokarrirtza, mugagabekoa, mugagabetasuna,

mugarrizkoa, mugagabekoa, noizko egunak, orduak, ots-antzekoak, oyu-itzak, sendotzekiak, soñu ta ikurrak, ukatzea, urteko illak, zati-izena, zenbakitzak...

Auxe dozu elíztíaren mamiña. Ikus daíkezunez, ementxe dator ondo bírrín-duta edozein izkuntz- gramatikatan erabillí oi diran ikas-goraberak guztiak; ez dautso ezertxok be íges egin. Liburu mardula, baiña guztiz interesgarria. Bear bada arriluko zíñan ainbeste itz- ezezaun ikusita; ez dira barriak be, edozein iztegitan datozanak baiño; arrigarri egin ba'yatzuz, zeure erruz da, ikasi ez dozuzalako, errezak eta doiñutsuak dozuz, errez-errez belarriak artzen dabezanak. Irakurri egizuz zortzi-amar ikaskai, astiro ta arduraz, eta igarri barik geratuko jatuz. Eta gramatika osoaren jaube egíngo zara.

Egiñaz eta esanaz konturatzeke ez da txarra adibide lez agergarri bat jar-tea. Eta ona beingoan olako bat dalako liburuaren erdi erditik artuta, au da, 88'garren ikaskaía, oso-osorík.

LAROGETAZORTZIGAR'EN IKASKAYA

Aditz-jokoa

EGINKOR'A - IRAGANKOR'A - ADITZ LAGUNTZALEA IZAN - AGINTZERA - IZAKAI-ADIZKIÑAK

iruga en notiñaren bakar-izakaya

Nik	D- e) -ZA- -Da-	N	
Zuk	e) -ZA- -ZU		edo: ZA- -ZU
Berak	B- e) -ZA		
Guk	D- e) -ZA- -GU-	-N	
Zuek	e) -ZA- -GU--TE		edo: ZA- -ZU--TE
Berak	B- e) -ZA- -TE		

Iruga en notiñaren bakar-izakaya

Ník	D- -IT- -ZA- -Da-	N	
Zuk	IT- -ZA- -ZU		
Berak	B- -IT- -ZA		
Guk	D- -IT- -ZA- -GU-	N	
Zuek	IT- -ZA- -ZU- -TE		
Berak	B- -IT- -ZA- -TE		

Ja ítako erak: DEZADAN, EZAZU, ..., íragangaitzetan agírí zíran beren mala-koak bezela, eztira bakarik erabiltzen, aditz iraganko aren izenarekin, bi itzez-ko eraz baiño.

Etoñ ere, eztatoz IZAN'etik, bere eratorrítako EZAN'etik baizik; baña azken itz ori, zentzunik emateko, ezta bakarik erabiltzen.

Lenengo notiñetan, asteko D- ikusten dugu, iruga en notiñaren izakaya adierazteko, len besteetan be agiri-izan danez; eta amaitzeko -N, laguntzale

iragangaitzean bezela; ta izki onek, emen ere, era oyei menekoeraren bedegartasuna ebatzen die, era au ikasteen ikusiko dugunez.

Bigaren notiñetan, -ZA- e oa agertzen da, bakarrik edo geikia dan e) izkia-renkin, EZA-; ta adi-yabea adierazteko amayerak.

Eta iruga en notiñetan, asteko B- ikusten da, era ontako bedega a dan izkia.

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan, sei notiñai dagozkien EZAren era iraganko ak ipiñi bear dira eta aska -izakayaz; kulatzen ordez, esan eta idatzeko:

	Bakar-izakayaz	Aska -izakayaz
Nik	Dezadan	
Zuk		itzazu
Berak	Beza	
Guk	...	ditzagun
Zuek	Ezazute	
Berak		bitzate

2. U engo esakuntzetan, aditzera iraganko ak agertzen dira; oyetan, baka -izakayezkoak diranak aska ekoen bidez aldatu bear dira, ta alderantziz, aska -izakayezkoak baka ekoen bidez; era berean, bayezkoak ezezkoen bidez eta ezezkoak bayezkoen bidez ere aldatzeko; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Gutxiago *jan ezazu* ez gaxotzeko; ... - *Ez ditzadan* iñoiz o elako asmoak *ukan*; ... - *lkasi beza* mutil orek gero ta geyago; ... - *Ez dezagun lo-egin* zure adiskideak etxetik joan arte; ... - *Layatu ezazute* zuen soloa Goyeñ'n dagiten bezala; ... - *Galbaitu bitzate* gari ta garage!' guzti oyek lenbailen; ... - *lrauli dezadan* etxe-au ean egu -gurdi ori; ... - *Landatu itzazu* zure baratzean zugatz igalidunak geyago; ... - *Ez bitza jaitzi* bere ardiak beste artzañak eldu arte; ...

añ aundi ori bidetik at, a etaz jartzeko; ... - *Ez itzazute* oindiño iñausi, ez udareondo ez eta saga ondoak ere; ... - *Ez bitzate eralki* emen igararik oraintxe ekari ditzuten urunak; ..

3. Oitura dugunez, emengo galderal erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Kendu ezazu ori ortik!: Zer nai duzu nik kentzea? ... - Nundik nal duzu ori kentzea?; ... - Ori ortik kentzea oyei eskatu al diezu? Ez, ... zuri baño. -- Ona etortzea gebendu bailete, ez zinduzteketeen ikusiko: Nork ez gindukean ikusiko, ona etortzea gebendu bellote?

Nortzuk ez zituzketeen ikusiko, ona etortzea gebendu bailete?...

Nik ikusiko al zindukedan ona etortzea gebendu balidate?; Ez, zuk ere ... -- Egiazko euzkaltzaleak beren asmoak edonun zabalduko lituzkete: Nortzuek zabalduko lituzkete beren asmoak edonun?; ... -Zer zabalduko lukete edonun egiazko euzkaltzaleak?; ... -Zuk ere zure asmoak edonun zabalduko al zenituke? Bai, nik ere ...- Ez zitzaigun iñor urbildu: Nori etzitzayon iñor urbildu?;... Nor ez zitzaizuen urbildu?; ... -Niri iñor urbildu al zitzaidan?; Ez, zuri ere ... --Zer uste-izango lukete, berak egin dutena gerok egingo bagenu?; gaizki egongo litzakela uste izango lukete, berak egin dutena zerok egingo bazenute: Ongi

egongo litzakela uste al izango al lukete, berak egin dutena gerok egingo bage-
nu? ... Nork uste izango luke, egin duena zuk egingo bazenu, gaizki egongo li-
tzakela?; ... - Eta zuek egin duzutena guk egingo bagenu, gaizki egongo litzaka-
kela uste-izango al zenukete?; Ez, guk ..., baizik. -- Beren bazkariaren ondaki-
ñak utziko balizkigute, ez genieke ezer esango: Nori ez zeniekete ezer esango,
bere bazkariaren ondakiñak utziko balizkizue, ez genieke ezer esango: Nori ez
zeniekete ezer esango, bere bazkariaren ondakiñak utziko balizkizue?; ... - Eta
beren bazkariaren ondakiñak utziko balizkizute, ezer esango al zeniekete?; ...
- Zuk ezer esango al zenidake nire bazkariaren ondakiñak utziko banizkizu?;
Ez, nik ere ... -- Jakin beza auro ek lenbailen, egin bear duena: Nork jakin bear
du lenbailen, egin bear duena?; ... - Zer jakin bear du aur oek lenbailen?; ... -
Zuek ere lenbailen jakin bear al duzute, egin bear duzutena?; Bai, guk ere ... --
Beren maitasa eetaz zuzpertuko bazinduztee?!: Obeto egongo al ziñakete
beren maitasa eetaz zuzpertuko bazinduztee?; ... - Nola egongo ziñakete
obeto?; ... - Ni ere obeto egongo al nintzake beren maitasa eetaz zuzpertuko
banindute?; Bai, zu ere ... --- Esan zenidan onezaz, ez niekean ezer itzegingo;
Nork ez ziekean ezer itzegingo, esan nion onezaz?; ... - Zertaz ez zeniek
ezer itzagingo?; ... - Guk ezer itzegingo al geniekean, zuek esan zeniguten one-
zaz?; Ez, zuek ere ... -- Itxasertzeko arkaitz aundienak erakutsiko nizkizueke:
Nork erakutsiko lizkiguke itxasertzeko arkaitz aundienak?; ... - Zer erakutsiko
zeniguke?; ... - Guk erakutsiko al genizkizueke itxasertzeko arkaitz aundienak?;
Ez, ... baño. -- Orduan ez ninduten ikusi ornen, jabearengana zurekin joan nint-
zanean : Nor etzuten ornen ikusi, jabearengana nirekin joan ziñanean?; ... -
Noiz ez zinduten ikusi omen?; ... - Gu ikusi ornen ginduzten jabearengana zue-
kin joan giñanean?; Ez, zuek ere ... -- O aztu ezazu ondo zure burua! : Nork
o aztu bear du ondo bere burua?; ... - Nola o aztu bear dut nire burua?; ... -
Nor o aztu bear du ondo orek?; Bere burua ... -- Iltzatu itzazute kutxa oyek len-
bailen! : Nortzuek iltzatu bear dituzte kutxa oyek lenbailen?; ... - Zer iltzatu bear
dugu lenbailen?; ... - Eta nik ez al ditut iltzatu bear kutxa oyek lenbailen?; Ez, ...
baizik. -- Senda beza bere burua alik eta ongienik! : Nork sendatu bear du bere
burua alik eta ongienik?; ... - Nor sendatu bear du oek alik eta ongienik?; ... -
Gexo ayek ere beren burua alik eta ongienik sendatu bear al dute?; Bai, ayek
ere ... -- Irabazleek ez zuketean ainbeste jardukiko : Nortzuek etzuketean ain-
beste jardukiko?; ... - Nola etzuketean jardukiko?; ... - Zuek ainbeste jardukiko
al zenuketean?; Ez, guk ere ... -- Oso pozik egongo ziñaketean, garaiz aldu
baziñate bezela : Nortzuk egongo zitzaketean oso pozik, garaiz aldu balira
bezela?; ... - Nola egongo giñakean oso pozik?; ... - Ume ori ere oso pozik
egongo al zitzakean, garaiz eldu balitz bezela?; Bai, ume ori ere ...

4. Emen ipui biren beri ematen da, ta, guzia ongi irakuñ ondoren, ipui oyen
mami ta zertzeladak adiskide bati egingo zayon gutun batean idatzi bear dira,
norberaren arauz :

"MARI'REN MO OYAK"

"Jentilak Leizadi'ko arpe batean bizi zirala, egundoko izar eder bat odeye-
tan agertu zan.

Alako izava ikusi zutenean, jentil ayek erabat ikaratu ziran, ta Ludi'an zer
gertatu bear ote zan ezin asmatu rik zebilzten.

Alako batean, arpe ba uan erdi-itxututa zegoen jentil za bat ataka au era atera ta, betazalak endayaz zabaldurik, odehyetara begira jafi zuten, antz emango ziola-ta.

Bai ta, ikusi orduko, deadar egin : -Ai, ene umeak...! "Kismie" jayo duk, galduak gaituk oraintxe. Bota nazazute ni emendik gain-bera.

Jentiek Jesukristo'ri "Kismie" deitzen zioten...

Gero, Kristau-asmoa Ludi'an zabaltzen asi zanean, jentil guziak sakabanatu ta bereala galdu ziran...

- Ta, zure jakin-min ori ase al duzu, euzkalduna...?

- Azkeneko galdera bat egingo dizut, galdetzen uzten baldin badidazu.

- Galdetu, galdetu...!

- Tartalo'ren izena aipatu didazu lenago. Zein zan Tartalo ori?

- Tartalo, gaiztoa zan. Bekokiaren erdian zeukan begi baka aundi bat, eta Aizko i'ko arpe batean bizi zan...

- Zergatik esaten didazu Tartalo gaiztoa zala...?

- Tartalo'k mendiko piztiak jaten zituen; baña kristauren bat a apatu ezkerore...

- Jaten zituen...?

- Bai, orixe...!

- Ta bizi al da oraindik...?

- Esango dizut nola fi zan : Bein bi anai a apatu zituen. Biak, mutil gazteak. Arpara eraman, ateak itxi ta, ayetako baten bu untzia sartu ta, e eta, jan zuen. Besteari, beriz, eraztuna jari zion atz batean, ezin kentzekoa.

Bazkalondoan loak artu zuen Tartalo,.. Orduan baste anayak, bizi zanak, bu untzia sutan goritu ta bere begi baka etik sartu zion Tartalo'ri.

Tartalo'ren o u ta ga axiak...! Itxu geratua en, ba-zuen inda a, ta mutilaren bila zebilen; ardi-na u pila batean gordeta zegoen gure mutil ori. Mutila e ezago bilatzeko, Tartalo'k ardi-na uak arpetik lekorera bota zituen. Bai ta mutila ere, na uekin batera.

Ekiten dio mutilak aldapa-bera laisterka. Baña atzean zeraman eraztuna asi zan deika ; -Emen nago...!, emen nago...!

Deadar ayetara, Tartalo laisterka be mutilaren ondoren. Mutilak bere burua galbidean ikusi zuenean, atza ebagi ta, eraztun ta guzi, osin aundi batera bota zuen... Bai ta Tartalo ere, eraztunaren atzetik, osinera... Bertan ito zan".

Orrelaxe daukaguz beste ikaskai guztiak be. Lenengo gafaren azalpena, gaiderei erantzuna, ipuin edo beste euskal lanen baten zatia andik edo emendik artuta. Ikaskaí asko dirala? Bai, eun eta 87; baiña artetsu irakurriz eta pizkat gogoznartuz ba'zoaz, igarri barik jaubetzen zara gura izkuntza ederrez.

Arrinda'ren "Jainko txikiak" (17-8-9'gn. o ialdeetan)
Aita Onaindia



EUZKERARI BURUZ AZPEGI BEREZIA

Beste lan batzuetan oartu, esan eta esondatu dugunez, gure izkuntza au ondo erabiltzeko, ondo ere ta lenago aztertzea dagokigu, gero ta sakonago aztertu, egitan euzkera nolakoa dan jakiteko, ots, bere egitura edo bere eliztia zeatzez ikustean, euzkera bera dan bezela onartzeko ta mintzatzeko ta idazteko. Aipatzen dugun onek pef okeri bat dirudi ain argi ta garbia baita; baña gaurko ontan entzuten eta irakurtzen diran gauzak asko gogoratu ezkeru, ustekoa da guzti ori oso sal ikusten ez dala edo, ikusten bada, aintzakotzat artzen ez dala; ondorioaz, alde guztietan amaika mordollo ta gure euzkera oso erderakadaz josita ikusi bear.

Geron ustez, amaika oker egiten dira bazte etan, apika aunitzentzat ortan ga antzirik ez dagoelakoan, batzuentzat gauzak ongi ta sakon ikasten ez diralako, edo gaurko giroa orela zuzenduta dagoelako, ta oreren jokera ja aitzea, ona ala txa a ots dan begiratu gabe, erosoago zayelako. Orela yardutean oker aundia egiten ad da nun-nai, ta o engatik idazten al gera oker orokar oren azpegi batzuk salatzean, guzia bere bide onera, jato era erakartzeko nayaz, geron aldetik ere oker egin dezakegula aiztu gabe; baña azpegi guztietan gure izpideak ematen ditugu, gure aldetik ezin oñañrik gabe ezer artu, ez esan, ez idatzi ere; ta orixe da beti guziengandik entzun eta irakuñ al-izatea nai-izango genukena.

Oñañ oroka a bezela, beñz ere, auxe jañ nai dugu: euzkera bera dan bezela onartzea guziori ezinbestekoa zaigula; ezin aldatu dezakegu gure izkuntza, iñola ere ez, ezerengatik be; gu gera euzkeraren bideetatik ibili bear dugunok, ez euzkera gure egokitasunera ekañ nai-izan. Orixo da, geron ustez, guztion aldetik onartu bear-izango litzaken asiera goto a.

Asmo ortaz gaurko gure lantxo ontan, euzkeraren azpegi berezi bat erabili nai dugu, oso berezia dan azpegia: Z izkia, soñu ta iku a bezela, begiratzea. Soñuaz, Z izkiaz adierazi bear dana oso berezia da, ta auxe dugu lenengoz begiratu bear duguna: ez da gogora, erderaz "caza" itzean esaten dan bezela, ez eta oso biguna, erderaz "casa" itzean oguzten danez; soñu bi auen artekoa da gure Z'ren soñua. Beraz, euzkeraz, Z ta soñuak alka en ondoan eta urbil dagoz, eta aspaldidanik gurean guztia erderaz ikasi bear-izan dugulako, eraz gertatzen da soñu bi oyek nastea, edo bearbada obeki esan dezakegu Z'ren soñu berezia S'arenaz aldatuta maiz ikusten dugula.

Azkue'ren iztegian irakuñ ditekenez, orixe bera oartzen da, ta aspaldian ere, ()henar idazleak, bere aldian, Z'ren ordez S ta TZ'ren ordez Z erabili zituela

esaten da. Alakotz, oke a ez da gaurkoa baka ik eta aspaldian be orela agertzen da; baña beti, enurarik gabe, erderaren eragiteagatik. Bea ezkoa izango zaigu, beraz, oker ori beste guztiak bezela, zuzentzea, euzkera bera egitan dan bezela erabiltzeko, ta zuzentza guztiak ikastoletan egiten asi bear dalakotan gagoz.

Ikus ditzagun orain Z izkiaren azpegi batzuk, zertan eta zertarako erabiltzen dan; eta ez soñu bat adierazteko iku a bezela bakañk begiratzean, izkuntzan zertarako erabiltzen dan ere oartzean baizik.

Esan dezagun, lenengoz, Z izkia aurizki, erdizki ta atzizkia bezela erabiltzen dala.

Au izki bezela, iztegi guztietan aipatzen ez dana, itz askotan agertzen, gedin bateaz asten diran beste itzai gañeratzen eta lenengo itzaren zentzuna aldatzean, beste zentzun be iaz beste itz bat eratzeko. E.b.: ARAGI + Z = ZARAGI; EU + Z = ZEU; IBAR + Z = ZIRA UBI + Z = ZUBI; UBIDE + Z = ZUBIDE;

Batzuetan Z'az egindako bigaren zentzuna, lenengoarena edatua bezela agertzen da. Ona emen batzuk: APAL + Z = ZAPAL; APALDU + Z = ZAPALDU; ENTZUN + Z = ZENTZUN; ERGA + Z = ZERGA; IZA + Z = ZIZA; ORATU + Z = ZORATU; ORI + Z = ZORI; USMA + Z = ZUSMA; ...

Beste batzuetan itz bien zentzuna berdin dala dirudi. E.b.: APO + Z = ZAPO; AR APASTAKA + Z = ZAR APASTAKA; A APO + Z = ZAR APO; I IKITU + Z = ZI IKITU; I IST + Z = ZI IST; UR UPA + Z = ZUR UPA; ...

Noiz edo noiz itzen zentzunak alka en antzekoak dira. Onela: ARAKA + Z = ZARAKA; ARGALDU + Z = ZARGALDU; INTZ + Z = ZINTZ; IPOTZ + Z = ZIPOTZ; IRT + Z = ZIRT; ...

Beste itzak geyago aipatu litezke, asko. Eta oar bat ere egin dezakegu emen: itzak idaztean erabili baño lenago, itzegitean ezagutzen ziran; alakotz, Z izkiaz itzezin orde, bere soñuaz mintzatzea obeki edo izango litzeke. Bai ta Z'ren soñua, askotan, S'renaz aldatua izan dala. E.b.: Azke esan orde, gaur Aske esaten da, ta itz bi auen zentzunak ez dira berdin; Aske itzak auxe adierazten du: len gauza bat lotuta izanez, lotura kendu-ta, lotu gabe geratzen dala: ASKE. Azke itza beste zentzun au adieraztekoa da: len zerbait edo norbait menperatuta zegoena, menperapen oren gabe geratzen dala, ots: AZKE. Bi zentzun oyek alka en antzekoak dira, baña ez zentzun berekoak. Ba-dira beste itzak oyen antzekoak lez ikus ditzakegunak: Asi ta azi, ikusi ta ikuzi, jaso ta jazo, ...

Erdizkia bezela aditz-jokoan ikusi diteke, beti aska en zentzuna emateko: Daukat eta daukat, daramazu ta daramazkizu, ...; ta ortarako ere Z atzizkia bezela agertzen da: Dot eta dodaz, dau ta dauz, dogu ta doguz, ...

Baña, len esan dugunez, soñua begiratzea da garantzi aundienakoa; ta Z ta S izkien soñuak alka enetik oso urbil dagozelako, ta ikastoletan soñu bi oyek ongi bereiztea irakasi eztalako, gaur itz batzuk S'az esaten eta idazten dira Z'az egin orde; e.b.: euskera, euzkera orde; euskaldun, euzkaldun orde; Euskadi, Euzkadi orde; askatasun, azkatasun orde; ... Ezinbestekoa bezela agertzen zaigu, beraz, gai at ezaz sakon aztertzea.

Z'ri buruz geyago begiratu nai-izan ezkerro, 1974'ko KARDABERAZ 3 aldizkarian idatzi nuen beste lana ikus diteke.

U estarazu'ta Andoni



ERDERAKADAK ETA AKATSAK

- 1.— Izparringi edo egunkarietako illeta-albiste edo eriotz-iragarkiak ez dira akats gutxiren arrobi izaten, tamalez. Esate baterako:
"Abuztuaren 19 egunean il zan... 21 egunean il zan..."
Zorioneko "abuztua" bere ortan utzita, "Abuztuaren 19'an... 21'ean... il zan" eta bestela "Abuztuaren 19'gn... egunean il zan".
- 2.— "Zure lagunak ez zaitugu AHASTUKO" dago egun eta toki berean.
Egokiago zitekean onela: "Zure lagunok ez zaitugu aaztuko".
- 3.— ‖dako baten illeta-albiste zabaltzekoan, bizibidez edo lanbidez zer zan adierazi nairik, egunkarian "ARAGIJALE" ikusi dutenak badira.
Baiña zer adierazteko? Esan gabe, edo gaztelerazkoan zegoana ikusi gabe, nola asmatu, "Carnicero" adierazi nai zutela? Jakiña ez da berdin. ARAKIÑA da, noski, jarri bear zutena.
- 4.— "Aste-buruetan trafikiko handia DAGO" (ETB, 1991-VII-13'an).
Gutxienaz ere joan-etorri aundia DABIL esan ba'lute, gaitz-erdi zitekean.
- 5.— "Erritomo ona agertu du idi-pareak". (ETB, 91-VII-29'an)
- 6.— Asi dira PREMIAZKO billerak egiten... PREMIAZKO Batzordea izendatu dute... PREMIAZKO billera asiko dute... Paris'en" (ETB, 91-VIII-19'an eta 21'ean) Baiña... zer adierazteko darabilte "Premiazko" itz ori? Gaztelerazko "urgente" itza dute buruan, eta orren ordeaz, "premiatzko" itza darabilte euskeraz gauza guztietarako, oker eta zuzen.
- 7.— "Txosten konparatibo bat bidali die Lurraldeak". (ETB, 91-VIII-21 'ean).
- 8.— "Berriro martxan jartzea espero da". (ETB, 91-VIII-21'ean)
- 9.— Trenak, lan-uzteaz geldu zeudela-ta: "Serbitzua autobusez betetzen dute". (ETB, 91-VIII-21'ean)
- 10.— "Ez dut uste asko luzatuko naizenik". (ETB, 91-VIII-28'an) Garbi dago, noski, itzultzaileak buruan zeukan gaztelera: "No creo que me alargue mucho".

- 11.— Gobernari bati alegia, "Konfidantza kentzea erabaki du Batzar gorenak". (ETB, 91-VIII-28'an)
- 12.— "Ez duela ultimatium bat bezala artzen esan du". (ETB, 91-VIII-28'an)
- 13.— "Millesker, gurekin izateagatik". (ETB, 91-VIII-28'an) gurekin egon, izan... zeralako... Etorri zeralako.
- 14.— "Gaur zerbait irakatsi diguzu: jende ona egon dagoela". (ETB, 91-VIII-29'an) Zer esan zuten? Jende ona, egonean egoten dala ezer egin gabe? Ori edierazten du, "egon dagoela" esateak. Beste era ontara esan bear zuan: "Jende ona egon Badagoala".
- 15.— "Gaur izan da urumea'ren jatsiera". (ETB, 91-VI-23'an) Urumea ibaiak leengo tokian jarraitzen du, iñora jatsi gabe, nik dakidanez. Besterik da, urak jaiste, eta txalupak ere Urumea ibaian jaiste.
- 16.— Txirrundulariak jo ta ke laisterka doazela, baiña elmuga urrutitxo daukabela adierazteko, ona emen ateraldi bat: "Oraindik laixterketa asko falta da". (ETB, 91-VIII-11'an)
- 17.— "Pendiente gelditu ziren ainbat arazo martxa normalean jartzen ari dira". ETB, 91-IX-10.
- 18.— "Irregularitasunak garrantzi txikikoak dira"...
"Puntu komuna da"... ETB, 91-IX-12.
- 19.— "Oizko bisitak jaso ditu"... "Iru sail-buruen zesea erabaki du". ETB, 91-IX-13'an Nora JASO ote ditu? Bestetik, ZESEA oso polita da!?
- 20.— "Amedo'ren aurkako sententzia eman dute". ETB, 91-IX-21'ean.
- 21.— "Ospe andiz egin dute akto akademikoa" (ETB, 1991-X-3'an).
- 22.— "Orio'ko kluba, kanterako kluba da" (ETB, 1991-X-6'an)
- 23.— "Arraza autoktonoko ganaduak saritzeko dirua da".
"Eun da amairu abere lapurtu dira". ETB, 91-X-7'an ERORI DIRA, bai, LAPURTU, norbaitek lapurtuko zituan.
- 24.— "DAGOENEKOZ jakiñaren GAINEAN zaude agian, UZEIk egoitzAZ ALDATU EGIN DUELA". Okerrago idazterik, edo ERDERAZAGO idazterik beintzat, bai ote legoke?
 - a) Aoz esaten dugun arren, "jakiñaren GAINEAN" baiño egokiago legoke, "JAKIÑEAN ZAUDE".
 - b) "DAGOENEKOZ" esaldi ortan zearo oker dago, ONEZKERO bear baidu.
 - d) "EGOITZAZ ALDATU EGIN DUELA", ez da euskera, onako gaztelera onetxen berriztatzea edo "kalkoa" baizik: "Que ha mudado de domicilio"
Izan ere, zer aldatu du UZEIk egoitzaz? Ezer ez, noski. Bera "aldatu da egoitzaz". Eta bestela, "UZEI'k bere lantokia aldu du egoitzaz".
- 25.— "Kopatxo BAT hartuko dugu elkarrekin". Nere iritziz, KOPATXO BAT oso gutxi da elkarrekin artu aal izateko. Ori ere erderakada osoa da, gaztelaren aldakia: "Tomaremos UNA copa". Nola bear zukean? "Kopatxo BANA artuko ditugu elkarrekin". Au da euskera.

- 26.— "ENFRENDAMENDU gogorretan murgildua dabil Yugoslavia"… Mai PARALELO bat eratzea… Maia bil DADIN, eskatu dute". (ETB, 91-XI-4'an) Agian, MAAINA esango zuten… "Bil DADIN, etorri gera… Bil DADIN, bideak egin ditu, bai; baiña "BIL DADILLA eskatu dute", bear du.
- 27.— "Yugoslavia'n ENFRENTAMENTUAK ez dira amaitu… AKORDIOA ez DA ERRESPETATZEN". "Ez da"ren ordez, EZ DUTE, bear zukean. "Ez da kalte PERSONALIK izan istripuaren ondorioz". (E 1 B, 91-XI-6'an)
- 28.— "Aurra ESISTITUKO ez ba'litz bezala jokatzea"… ETB, 91-XI-16'an. "Gurasoak ez dira arazo au duten KONSZIENTEAK". ETB, 91-XI-16'an.
- 29.— "Armada federalaren mende erori da"… Emakume ta aurren ebakua-zioa asiko da… Oraindik enfrentamentuak daude… "Eskaera erretiratzea erabaki du". ETB, 91-XI-18.
- 30.— "Egoera politikoaren diagnostiko zeatza egin nai du". "Gerraren krudeltasuna adierazten dute". ETB, 91-XI-21 'ean.
- 31.— "Biztimak sortzen jarraitzen du ETA'k eta mutilatuak egiten". "Negoziaqueta zuzenak asiko dira". "Iturri diplomatikoez adierazi dute". ETB, 91-XI-23'an.
- 32.— "Iñolako iskanbillarik gabe disolbatu egin dira manifestariak". "Droga izan daiteke ilketa orren mobilla". ETB, 91-XI-28'an.
- 33.— "Au izango da billeraren oinarri filosofikoa". "Errusia errecurso ekonomikorik gabe gera daiteke". ETB, 91-XI-29'an.

GAZTAÑAGA'tar JESUS'ek

ERDERA GEIAGO

Universuaren Kharakter akkusativuaren aitzinean, haren interpretakuntzarako pensamendu eta praktika systema hoherent eta gohorraren formakuntze.

Aspe Gentea

Gure telesailak osotuko duan ginda.

ETB 1

Extraterrestreak inbaditu dute gure platoa.

ETB 1

Lutxa gogorra Udalaren okerraren kontra Gasteizko Adiano VI ren kalean. Moneta merkatuko aktiboetako inbertsio Fondoa.

(Fondo de inversión en activos de mercado monetario).

Errektorearen dimisioa.

Egunkaria

Amedo poliziak gaur deklaratu du Brouard aferaren inguruan.

Egunkaria.

Kotxearen kredituan interesetan.

Euskadiko Kutxa. Egunkaria.

Euskal preso, errefuxiatu eta deportatuak.

Egunkaria.

Ganbio Buletin.

(Boletin de Cambios)

Dokumental kreditu.

(Crédito documentario)

Korbana aktibo.

(Dividendo activo)

Data finkora.

(A fecha fija).

Bankari Balantzea.

(Balance bancario)

Moltsa Buletin.

(Boletin de Bolsa)

Gastuen eraketaz.

(Con gastos)

Bankuko Komenio Kolektiboa

(Convenio Colectivo de la Banca)

Kupoia kobrura.

(Cupon al cobro)

Grazia eguna.

(Dias de gracia)

Balantze bat faltseatu.

(Falsear un balance)

Interes konposatua.

(Interés compuesto)

Luburu bat dibertigarri eta fantasiatsua.

Alejandro Ferreira

Influentzien trafikoa.

(Tráfico de influencias)

Idazburuan adierazitako eskuman organuko Idazkariak.

(El/la Secretario/a del Organó jurisdiccional expresado en el encabezamiento)

Hizkuntza konsentsua pieza delikatua da.

Manifestarien biolentzia Poliziaren baiño justoagoa da.

Kurtsilloak, pintura, dibujoa, zeramika, artesanía, fotografia, yoya, dantza, gitarra elektrikoa eta gitarra bajoa dira.

(Nontzebarri)

Oin fumeu ez, edan berez, hembra kaz berez.

(Nontzebarri)

Karreterak kamioneruen piketeak blokeatuta.

(Eta Jainkoak jakin, zenbat, zoritxarrez ezin batu-ala)

J. Gastañaga eta "Taldeak"



JASOTAKO ESALDI JATORRAK

■ Atta-zarra ondo al dabil?

—Oso ondo! Baiña esfuerso aundiak TXAR EGITEN DIO.

Lo gaizki egiten duan batekin:

—Lo ondo egin al dezu?

—Gaur, bai-ba; oso ondo!

—TIRA-BA.

Goizeko zortziretan:

—Gau guztian parranda egin da, gaztedia BARRA-BARRA dabil kalean.

Goizeko bederatzitan MF7A-ERTEERAN, eleiz-atarian gazte bat LUR-OTZEAN etzanda lo ikusita:

—AU EGOERA!

—Oraintxe KOKOTZERAIÑO EGIN DA nago!

—Ordukarian zortzirak JO-ZAI ba'zaude, alperrik zaude, ordularia geldirik dago-ta.

ETORRI-ZAI.

—Mutil ori zer lanetan ari da?

—LANIK EGITEN DUANIK ERE ez dakit.

—Atzo EZKERO, ORIXE TA BERA ESAN DA ESAN ARI ZERA.

Zurekin ZORRETAN nago.

—Zer dezu orrela AU-ZABALKA egoteko?

(Geltokian lagun bat lasai dago, txartelak ematen ari ez DIRALAKOAN.

Lagun batek berari:)

—ITXIYA ZEGOALAKOAN zu lasai ...!

—EGOSGOGORRA DA GERO ...

- Kontuz! PUTZU-ZULOAN sartuko zara tal
 - BATZUN-BATZUK etorriko dira noski ...
 - KEZKATZEKO AIÑAKOA BA-DA!
 - Dana oso ESTU artzen du.
 - Estu ta larri.
 - Gai askotan da jakintsua ta ez, JAKIÑEKO BATEAN bakarrik. (Basarri'k).
 - AZKEN-BOLADA ONTAN zurrunga indartsuagoa egiten dezu.
- (Aur ttiki bat biurrikerian gelditu gabe dabillega, bera izebak):
- Geldirik egon zaite, NEKA-NEKA EGINDA nago tal
 - BEAR-BEARREZKOA DA.
 - EZIÑAREN-EZIÑEZ.
 - MIÑAREN-MIÑEZ.
 - Antxoa ttikia EZUR TA GUZTI JATEN DA.
 - Nere ZAR-ZARREAN ERE, osasuna ona dudala ta oso pozik bizi naiz.
 - BERTATIK BERTARA; etxe-ondoan duzu.
 - AURRF7-AURRE aurkitu giñan.
 - OKERRIK EZ ba da, biar or izango nauzu.
 - OKERRIK EZ DALA = s.e.u.o.
 - GEYENEZ ERE, GUL_I IRA 30 bat metro izango dira.
 - IZAN ERE, orrekin nola asmatu?
 - Bi au UME-EGIN BERRITAN, oso auldu egin oi da.
 - EGUZKI ZURIA DA eta ez du iya batere berotzen.
- (AUGUSTIN ZUBIKARAI'REN "ZALDUPEKO TXIKIENA"TIK)

Orrialdea


5 Ordu EZ-EGOKIAN

5 EZPAIN-ARTEKO otoi bat

6 ETEN-ETENDA laga zenduen

7 Eguna TATARREZ BETE bear
7 Lauremiña zalakoan
10 AKIKULOEN bat
11 TXOPINKA
12 Ume PONGOLOK
12 LO-KONKORREAN
12 LO-LODIAN
12 Ule KIRI-KOLAUDUNA
12 TRAPALOTE sendua
13 Alkarregaz TXOPINKA
13 TXOTXINKERIAK
15 KORROSKADAKA ASI zan
15 TONTOR GERATU
16 BEGITANZIÑOIA
17 Moskorra kaleko TXURLARIA DA
23 Kuntzurrenataik LOTU SAMARRA
23 TRAPALOTEIA ibilten
24 ASMOTXAK izango zirala
24 TATARREZ BIZI zan artean
24 LAKIOAN JAUSITA
29 BERE BOSTEAN
35 TXATXALA, TXOTXIN andi bat izan zan
35 Akuluka ez zara ba ibilten TXITXI-POTXIN?
35 Zer? Zerak zeure PONGOLETAN
37 Goseak **arrakalatuta**. Goseak KOIU
41 Asi zan, AUTU-MAUTU KALEAN
41 GANTZERUAK ibilten zirala
45 PATXI-KONTRA ZAN GIZON bateri
45 BEREBOSTEAN OR DAUKAZUZ-KA artu
58 Lurrak, alegiñaren BEIAN
65 ITSU-ITSU maite izatea
66 TXORITXIKIKO GAUZA izan arren
87 Sits ETA BITS.
100 Egun BERBERTAN
101 Erria GORA-GORAKA eta asarre

Oñatibia'tar Manu.



SANTURTZE ALA SANTURTZI?

Beste kontu askotan lez onetan be ez gagoz batera euskal idazleok. Gaur egunean geienak Santurtzi idazten dabe. Baiña len geienak Santurtze edo Santurze idazten eben. Izan leiteke berbetan lenago be Santurtzi geiago erabiltea.

Baten idazle batek kontu au zala-ta itaun bat egin ei eutsan Mutriku'ko arrantzale bateri; la eurak zelan deitzen eutsen itxas erri orreri euskeraz. Ta Santurtzi esaten eutsoela, erentzun el eutsan.

Neuri be olantxe erantzun eustan itaun bardiña egin neutsan lagun batek. Baiña niri Santurtze'k urteten dauat berbetan diar-dutela bera aitatu bearra izaten ba'dot.

Euskaltzaindiak be Santurtzi ipiñi dau euskerakotzat udalen izendegian.

Gorago esan dodan lez len asko geiago ziran Santurtze idazten ebenak.

Eurek santurtzearrak aspalditik erderaz bakarrik berba egiten dabeenak dira ta euren ingurutako erriak be bai. Beraz, euregandik ez dogu ezer argituko; urrunagoko euskaldunakaz bailo bearko gara zer-edo-zer on atarateko.

Euskera idatzian erri ori geien aitatzen dana, estropadetako bertsoetan da.

Ikusi daigun zelan deitzen eutsoen lengo bertsolariak, batzuk gipuzkoarrak, Nerbion ibaiak itxasoa joten daben tokian dagoan erri orreri. Bertsuok asko Zubikarai'tar Augustin'en TREIÑERU ESTROPADAK ñburutik artutakoak dira ta AUSPOAtik be bai bat edo beste. Lenengoak Zubikarai'ren ñburukoak dira.

Ondarrutarrak bueltan etorri zanian
Santurtzear bat zuten, billatu bidean;
oyen planta ikusita lotsatzen ez ziran,
barriz etorri gabe, zaudete etxian.

Goiko bertso ori **zeiñena** dan eta zein urtetako estropadana dan ez dau agertzen.

Santurtze, Elantxobe, Zierbanakuak,
Armintza ta Bermio ta Oriokuak,
baita ere ba ziran Desiertokuak,
baña bitorioso Ondarruakuak.

1902'koa da bertakoa. Bere egillearen barririk ez da.

Orain datozanak 1926'koak eta Burgoak jarriak dira, Ondarrua'ko mariñela bera.

Lengo igande batez	Santurtziarrak ibilli
aditu dedanez,	ornen ziran bero,
korridak zeudezela	bandera eramatia
jakin det zezenez,	bazuten espero,
Santurtziarrak kontxan	Lekeitioko korridak
bazetorren aurrez,	zezenakin gero,
aurten ere kukuak	irabazi balute
jo die aldrebes,	egiteko edo,
Lekeitioko atsuak	engañatu dirala
or dagoz negarrez.	ni orretan nago.

Goiko bertsoengaitik 1926'koak dirala esaten da liburuan, baiña urte aretan Santurtze ez zan joan Kontxa'ko estropadetara.

Urrengo bertsoa Txirrita'rena da, 1927'garrenekoa.

Bizkaiatik bat Zierbana zan
eta Santurtze bestia,
juan daneko bi illabetian
ez noski gutxi kostia;
donostiarrak atzea xamar,
nola zan jende gaztia,
oraindik zerbait egingo dute
mutil eskasak eztia.

Urrengo bertsoak Abarrategi'k jarritakuak dira, 1929'koak.

Amaika ta erdi alde orretan
kontxan ziraden abitu,
Santurtze ta Getari ziran
San juanekin tokatu,
beti bezela iru millako
bidia bear pasatu,
Elkano eta Pasaya
ederki asko probatu,
oyen arraunak dantzatutia
askori zayo gustatu.

Lau onenen prueba uztia
illaren amabosteko,
baita txalupak ere trukatu
zituzten egun artako,
Santurtziarren ontzia berriz
tokatu San Pedrontzako,
orrekin markik egingo zunik
askok etzuten usteko,
laparda ederra eroria da
deskuidatu danantzako.

Getarik ere irabazia
ba daka irugarrena,
lau milla eta bosteun peseta
orra tokatu zayona,
Santurtzek berriz ala biar da
atera du laugarrena,
iru bat milla pesetakua
orri eman diotena,
ala ere badu pagatutzeko
bi egunetako jana.

1933'ko estropadan olantxe geratu zirala esaten dau Zubikarai'ren liburuak:

- 1—Orio
- 2—Ondarribia
- 3—Donostia (Amaikak Bat)
- 4—Santurze
- 5—San Pedro
- 6—Luchana
- 7—Donostia (Empuje)

1946'ko estropadari Mendaro Txirristaka bertsolariak ataratako bertsoetatik bat olan da:

Asi Santurtze'n eta
Ondarrabiraño,
arraunlari obenak izandu
dira oraindaño.

Urrengo bertsoak AUSPOA'tik artutakoak dira.

Ondarrabiya premiyuetan
sartu zaigu bigarrena,
berai lagunduz aldamenian
Oriyotarrena aurrena,
Santurzetar gizon famatuak
tokatu ziran laugarrena,
oik e kontentu juan dirade
eztue premiyo txarrena.

Goiko bertso ori 1933'ko estropadena da ta bere egillea oriotar bertsolari Txanka'rena.

Ondoren datozen bertsoak 1920'ko estropadenak, Juan Zabaleta'renak dira; ta beste biak, 1922'ko estropadenak, bere anaia Pello Zabaleta'renak.

1920

Ondarrabiya eta
San Juan pasaia,
Donostiya eta Santurze
bostgarrena Zumaia;
alkar peleatzera
ainbeste anaia,
amaika ta erditako
Donostiko piala.

Bizkaiako Santurze
arrazoiz da mintza
zergatikan sartu zan
Zumaian baliza;
aurten artu dute uste
gabeko paliza
ez fiatu berriz e
orIa badbiltza.

Zazpi txalupa ziran
or apuntatuak,
aurtengo estropadan
jokatutzekuak;
Bizkaiatik bakarra
sei Gipuzkuakuak,
Ondarrabi, Pasaia,
bi Donostikuak,
Zumaia ta Santurze
ta Getarikuak.

Juraduak salida
oiei emanikan,
Getaria sartu da
danen aurretikan,
Pasaitarrak an zitun
laister ondotikan,
gero Santurzetarrak,
gogor jogatikan
Ondarrabitarrakin
etzun arronkikan.

Orain arte bertsolariak esandakoak ekarri doguz. Emendik aurrera idazleak idatzitakoak izango dira.

"Ondarrabia'tik asite Santurze'rañeko euskal-itxaserri guztian eukien zori negar egin andia, baña batez be Bermeotarrak, Elantxobe, Lekeitio, Arranondo ta Muturzulo'kuak".

(Txomin Agirre, KRESALA, 182 orr.)

"Egun orretan bertan gu be, Santurtze'tik baiña beste itxasontzi baten, "Galea"n Frantziara, Bordelera joan giñan, errefuxiatuen barku guztiak lez, gudontzi britaniaren babezpean".

(ZER asterokoa, 140 zenbakia)

"Santurtzeko semea nozu (1934), jaiotzez erdalduna beraz, euskaltzale zarra baiña". (BIZKAIKO EUSKAL IDAZLEAK, Etxebarrina'tar Juan Angel)

"Bizkaia'n Sestao, Portugalete, Santurze, Bermeo, Lekeitio ta Ondarru, guztiz ospatuak izan dira"; (S. Onaindia, GURE BERTSOLARIAK, 155-156 orr.)

"Abeslari bezela, oraintsu Santurtze'ko kanta-konkurtoan bigarren geratu yakun". (S. Onaindia, Lamiña. Liburu onetan beste iru bider be ba-dator bizkaitar erre onen izena, 171, 179 ta 185 orrialdetan. Ta beti olantxe: Santurze).

Akesolo'k bietara ipinten dau erri onen izena bere IDAZLAN GUZTIAK liburuan.

l 334 orrialdean: "... urrengo egunean ilda agertu ziran biak Gallarta ta Santurtzi bitartean".

l 411 orrialdean: "Aren urrengo datoz: Santurze, Abando-Zierbana, Galdames, Somorrostro, Sopena, Truzios,...".

Emen amaitzen dot kontu onegaz. Ikusi dogu idaztean Santurze edo Santurtze asko geiago egin dala orain arte. Orain Santurtzi goruntz asi da ta Santurtze beruntz.

Jose Mari Etxaburu "Kamiñazpi"

ERRIA ETA GU

Gabonillak 9

Eskutitz onen bitartez, "Euskerazaintza" iru ilarabeteroko aldizkaria zertxobait geiago obetzeko, naiz ta oiñ naiko ondo egon, nik uste ein leikela izparringietan eta era guztiko aldizkarietan lez, aldizkariaren txokoren batean "zuzendaritari gutunak" bezelako zerbait. Au da, orritxoren bat edo, bertan irakurleak euren iritziak (aldizkariaren artikulua, gizartekoak...) azalduz.

Au, aldizkarian irakurlegoaren parte artzea, mesedegarri litzateke aldizka (irakurleen iritzi eta nañak zeintzuk diran jakingo diralako), baita mesedegarri irakurleentzat (euren iritzi eta arremanak sakonduko diralako baita euren buruak aldizkariaren parte artzaille lez ikusiko dabezalako).

Neure asmo au kontutan izango dozutelako eta txoko ori sortuko dozutelako asmoan agertzen da zuen irakurle bat.

Otxanda Zarrabe.

Erantzun lez zenbaki onetan bertan asten dogu "Galde-erantzunak" atala.

Asieratik garbi diñogu euskeraren arlotik datozen galde-erantzunak izango dirala gureak. Iritzi ezbarदिñetako gizon eta emakumeak gara "Euskerazaintza"n, baiña emen ez gara batu euskerari buruz daukagun jokabide eta lan eginbearrean baiño.

Erri euskeraren maitale sutsuak gara eta euskeraren ildotik kanpo dabillen galdera nai eskabiderik ez dogu aukeratu ez erabiliko.

Beste gaietan ez dautsagu iñori bere irizpide librerik ukatuko.

Baiña "Euskerazaintza"n euskerazaintzako, askatasun osoz eta kontzientziko kezka artu dogun jokabidea dalako.

GALDE ERANTZUNAK

"Jaunak: Agirre ondarrutarra izan al zan Euskaltzaindiko?"

Itaun au egiten dot bere euskaltzain lanik ez dodalako ezagutzen. Argitu nai neuke. Eskerrak aurrez. E. tar B, Lekeitio.

Asierako: Kontuan euki Txomin Agirre 1920'ko urtarrillaren 14'n il zala, eta sortu zanetik, nal eta Euskaltzaindia batzarrak egiten gogoz asi, denborarik ez ebala euki lanerako.

Txomin Agirre Euskaltzaindiagaz Jotzen daben gertaerak oneik dira:

1918'ko Lotazillaren 12'an, Kosme Elgezabaltarra eta Landaburu'tar Peli'k idazki bat zuzendu eben Bizkai'ko Aldundira.

Idazki orren laugarren atalean esaten zan: "Jarten dira oraindik... lagun, Lhande, Campion, Azkue, Agirre, Arriandiaga, Bustintza, Etxalar, Eleizalde, Olabide, Belaustegigoitia, Basabe, Euzkeltzale Bazkunako bat, Eguzkitza, Lopez Mendizabal, Urkixo (Julio), Agerre (Iruñakua) eta Bayonako "Eskualduna"ren ordezkari bat. Jaun orrek gertuko dabe Bazkundien Araudiya".

Orra Agirre erakundea gertuteko aukeratuen artean.

Jakiña da Txomin Agirre Oñateko Batzarra ordurako gaiso ebillala. Alaz eta Txomin euskera Batzordeko mal buru egon zala.

Orduko agirietan irakurten da aurreko batzarretako eztabaida bat:

"Eleizalde'k: Lan aundi ortarako guk emen eztauzkagun indar eta argiak bear dira, arretaz bururatu bear dan arloa da-ta.

Garai ortan mai buru zegoan Domingo Agirre'k (Goian bego) galdetu zuan: Euskeraren iker eta zaitzaille izan ditekean Baltza ori (oraindik izenik emango eztiogu) jarri dadin, nai baldinbadezute autarkiz erabaki bear degu. Onesten dezute?

Autarkiak bildu-ta, guziak baten baietz erantzun zuten".

Ba dira geroutsak, Urrillaren 1 Tan, Aita Olabide'k Batzordearen izenean sortaraudi gai bat landu ta apaindu ondoren batu zan batzarrean, danak batu ziran bi ezik: Agirre eta Urreta.

Ez zan agertu txomin'ik Azaroa'ren 1 Tan egindako batzarrera ere. Bai, orde, Azaroa'ren 1 Tan Bilbao'ko Aldundian egin zanera.

1919 izan zan lau Aldundiak Euskaltzaindiaren txedea onartzeko urtea eta Eusko Ikaskuntzari agindu eutsen Araudiak aituriko gizonak batzeko ta euren bidez Euskaltzain barriak izendatzeko.

Orrala Irailla'ren 11'an Eusko Ikaskuntzak deitu eutsen Oñati'n izentaduak ziran lenengo lau euskaltzaiñei: Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkijo'ri. Eta eurekin batean, aldi aretan agertzen ziran aldizkari eta euskal erakunden ordezkari lez, beste onei:

Karmelo Etxegarai, R.I.E.V. (Revista Internacional de Estudios Vascos).

Pierre Broussain: "Euskualduna" Baionakua.

Txomin Agirre: "Euskal Esnalea".

Damaso Intza: "Irugarren Prantziskotarra".

Zirilo Arzubiaga: "Jaungoiko Zale" eta "Jesusen Biotzaren deia".

Toribio Alzaga: "Euskal erria".

Gregorio Mujika: "Euskal Erriaren alde".

Eta onein artean aukeratu zituen euskaltzaiñak oneik izan ziran:

Txomin Agirre,

Pierre Broussain.

Adema, Blas.

Ramon Inzagarai.

Jose Agirre (Iruñakua).

Juan Bautista Eguzkitza,

Romualdo Olabide.

Beste bat falta zan. Eztabaida egon zan zortzigarrentzat bizkaitar bat ala zuberotarra aukeratu, eta Lhande aukeratu zan.

Euskaltzaindia sortu eta Agirre lenengo zortzi batzarretara joan zan. Denbora gitxian egin ziran batzarrak, baiña jakin bear da, alkartzen ziran egunean goiz eta arratsalde batzar bi egiten zituela.

Bederatzi ta amargarren batzarrak 1920'ko urtarrillaren 7 eta 8'an ospatu ziran, baiña bere izenik ez da agertzen.

Urrengo batzarreko agirian, au irakurten da: "Gure lagun maite Domingo Agirre zanaren arimaren onerako, euskaltzain guziak, bere Buru Azkue apaizak opaturiko meza bat, otsaillaren 17 goizean, Bilbo'ko eliz batean entzun zuten".

Orra Txomin Agirre euskaltzaiñaren gora-bera.

Goiko galdera egin dauan berberak beste au agiten dau:

Egia da Euskaltzaindiak, sortuta laster, Euskara ala euskera erabili bear zan eztabaida euki ebala eta Euskararen alde agertu zala.

Erantzuna: Guk dakigunez, 1920'ko urtarrillaren 8'ko batzarrean erabili zan eztabaida ori. Eta lenengo autarkaldian, esanbide bat eta besteak bostna autarki lortu zituen.

Bigarren autarkaldi bat egin zan. Bigarreanean 6 autarki agertu ziran euskeraren alde eta lau euskararen alde.

Ziurrago egoteko irugarren autarkaldi bat egin zan eta oraingo onetan zazpi lagun euskeraren alde eta iru euskararen alde.

Beraz zazpi autarki euskeraren alde eta iru euskeraren alde.

Beste gai bat izan zan euskeldun ala euskaldun deitu. Gai onetan euskaldun deitzearen aldekoak irabazi eben, zazpi eta iru.

A. Z.

EUZKERAZAINTZAKO ZUZENDARI JAUNARI

"Ni gure aitona ta aitari Gipuzkoari probintzia deitzen entzutera oitu nitzan.

Esan ere egiten zuten bizkaitarrak gipuzkoarrei probintzianoak deitzen zigutela. Gure familian ba zan merkaturik merkatu bere tratuetan ibiltzen zan bat eta ba dakit ango merkatuan" probintziano! goitzenekin ezagutzen zutela.

Gaur gero ta zabalago irakurri ta entzuten det lurraldea izena. Ba dakit Leizarango orrek ez dula ze ikusirik probintziarekin, baña bear ba da itzaren propaganda egiteko ez da gaizki gertatu.

Pozik artu ta irakurtzen det Euskerazaintza zuen aldizkaria eta naiko nuke ontzaz zerbait irakurri.

Ba al dakizute, zuek ez ba dezute ere, orretazko informazioren bat zein liburutan aurkitu nezaken?

Milla esker... (eta abar)"

L.I.U.

PROBINTZIAK

Euskalerrri'ko lurralde andienari probintziak deitu izan jakoe aspalditik, bai erderaz eta baita euskeraz be. Orduko euskaldunak ez eben uste izaten izen ori emonaz gure lurraldeai maillea gitxiten eutsenik, kategoria gitxiten eutsenik.

Ikusi daigun gure gizon ospetsu batzuk zelan deitzen eutseen gure lurraldeai:

"Kartzelatik aterata / fiskalan etxera / abisatu ziraden / juateko beriala / Ez etortzeko geiago / probintzia onetara / orduan artu nuen / Santander aldera". (Iparragirre'ren abesti ezaguna)

"Dice que las tres provincias se gobiernan por corregidores; es falso, pues Alava no le tiene". (Padre Larramendi)

"Guipuzcoa-onec bere fueroac / egundaño gorde ditu: / Probinzia onec seme leialac / oraindaño izan ditu". (Iztueta'ren GUIPUZCOACO DANTZA liburitik artuta)

"Gu gera iru probintzi / lengo legerik ez utzi". (Xenpelar)

"Ari dirade lanean / Frantzian eta Españian / egiteko onen gañian / Lau probintziak utz itzazute / lengo lege zuzunean / ez erdaldunen mendean / gauzak lenengo oñean / ala bearko dik atzenean". (Antonio Maria Labayen'en MUÑAGORRI liburuan datorrena, karlisten gerrateko bertsoa).

"Bai, Aspetarrak dira landara indartiak / Euskaldunen zazpi probintzien antz irudiak / Euskaldun sortu, euskaldun jayo ta aziak / Eurak Asaba zarren seme on ta garbiak". (Arrese Beitia).

Gu gazteak giñanean, Errepublika denporan, "probintzia" berbea tartean eban abesti au abesten genduan:

"Lau probintziak bat egin ezkerro / ez dago bildurrik ondo bizitzeko España gaberik, / Lau probintziak bat egin ezkerro ez dago bildurrik / Madrid'en sartzeko euskotar ikurriñarekin.

Ikusten dogun lez aspaldikoa da gure lurralde nagusiai "probintziak" deitzeko oiturea. Izen ori emotekañor ez eban mintzen; orain arte izen orrek gure lurraldeen nortasun maillea gitxiten ebanik iñok ez eban uste.

Ta politagoa! Txanda baten Gipuzkoari bere izen jatorra emoteko "probintzia" izena erabilten eban Gipuzkoatik kanpoko euskaldunak. Nire amak alantxe deitzen eutsan. Ta 1904'garren urtean Ondarroa'n egin zan Ama Birjiña'ren Antigua'tik erasteaz atara ziran bertso batek be olantxe esaten dau:

"Probintziatik jente / asko etorrita / Bizkayatik geyago / alan komenita..." (Jose Manuel Imaz'ek egindako bertsoak)

"Guipuzcoa, a quien en Vizcaya, Alaba y Navarra llaman por antonomasia la Provincia y provincianos a sus habitantes, (Larramendi en su Coreografía)

"uste ta alegin guziaz ondo limaturik eta Probintziako ta Bizkaiko gure euskaldun onenak," (Kardaberaz, Euskeraren Berri Onak)

"Baina Vizcaico, ta Probintziaco piestetan aut, ta utsa bat dira". (Erai Bartolome Santa Teresa. EUSCAL-ERRIJETACO OLGUETA...)

"Emen aratusteak daritxe, Probintzia aldean iñoteriak edo iñauteriak, Naparroan iagoteak". (Azkue, Bein da Betiko)

Orain, len esan dodan lez, gure lurraldeai emoteko izen txarra edo egokia ez dana dala uste dabe askok "probintzia" ta ordez, erderaz "territorio histórico" eta euskeraz "kondaira lurraldea" edo olako zeozer asmau dabe.

Ta lengo izena kentzen asi dira. Caja de Ahorros Provincial izena ainbat urtean euki daben aurrezki kutxeak, Caja de Guipuzcoa edo Gipuzkoa'ko Kutxa'ra aldatu dau.

Ori egitea txarto egitea dala esaten ez notar. Baiña nik neuk asabetatik etorri jaken izena emongo dausat gure lurraldeai: probintzia.

KAMIÑAZPI

LIBURUAK

LIBURUAK

EUSKERAZAIÑTZA'k ezin dau bastertu bere taldekoen liburuen argitalpenak aizetu eta bere arnasa eurei emoterjki.

Azken denboraldi onetan, gure aldizkarjaren aurreko zenbakia agertu zanetik, lau liburuk ezagutu dabe bere babesa edo zela-alako laguntza.

EUSKAL SENAREN MINTZOA. Idazlea, Olaizola tar Manuel.

190 orrijalde 19 x 12.

Olerkiak.


Berari Gaztañaga'tar Jesus'ek egindako itz-aurretik lerro batzuk aukeratuko doguz liburuaren bereiztasunekin konturatzeko.

"Bertso ta olerkiz osotu du liburu au Olaizola'tar Manuel jaunak. Bera ez da, ordea, izen-abizen berak dituan arren, ez da "Uztapide" bertsolari trebe ura, ez da donostiar politika-gizona ere".

"Liburu au ez da ikasketa zabalen emaitza, ez da ikerketa sakonen ondorio. Olaizola jaunak ba ditu bere ikasketak, bai Ikastetxeetakoak eta bai bereziki bere ogi-bide edo lanbidekoak. Liburua ez da, ordea, ikasketa oien frutu.

Liburua ez da olermen gorenaren emaitza, egillea ez bai-da ez Lizardi ta ez Orixe. Liburua ez da berezko bertsolari landuaren frutu ere. Eta ulertzekoa da, orrelakoak ez bai-dira izaten "dozenan amairu".

•••S••



Olaizola zumaiar donostiartuaren lana da, idatzi dugunaren adibide ta giroaren lekuko: eskolaz eta idazketaz euskera landu gabe ere, barne-muñeko senak eraginda, euskera dario bertso ta olerkietan. Eta euskeraz eskolatu gabeko gure erri-erriak pozik irakurriko, ulertuko eta aogozatuko du "Euskal-senaren mintzoa "liburu au".

AMESEN ILDOTIK Zubiri'tar Iñaki.


128 orrialde, 17 x 13.

Olerkiak. 63 olerki danetara.

Ezaguna da Zubiri idazle ta olerkaria. Origaitik ez dau iñoren aurkezpenik bear izan. Bai orraitik gura izan dau oartxu bat jarri, berak oituraz erabilten dauan erretorikako sinalefa dalakoa bere neurrietan kontu eukiteko adierazten.

Bere itzak dira: "Olerki-txorta onetan, baita lengo "Bidetik Amesetan" txortan be, irakurleek jakin bear dau, dalako "sinalefa" darabildala beti, neurriari dagokionetan".

Olerki ariñak, baiña biozkorrak, irudimen bizikoak, izadia maite dauan baten sormena erakusten dabenak.



APOSTOLUEN ETA MARTIRIEN DENBORAKO ELIZA. Latiegi tar Bixente.


Liburu mardul, sakon, irakatsi andikoz sail bat atarateko asmoz asi zan Latiegi eta urteak urte aurrera dua gaur euskeran bearrezko gendun Elizaren kondaira argi ta garbi bat burutzen.

Orra lengoak:

San Iñazioren denborako eliza.	1985 urtean argitaratua.
Denbora berrietako eliza.	1986 urtean.
Demokraziaren denborako eliza.	1989 urtean.
Gure denboretako eliza.	1990 urtean.

Eta orain, lengoen utsunea beteteko, Elizaren sormenetako denboretara joan da.


Latiegi'k ba daki liburu oneik ez dirala merkatuko liburuak, baiña bere alegiñen eta ikastaroen ondorenak kondairarako garbi utzi nai ditu eta onetan Euskerazaintza'ren laguntza oparoa ezagutu dau.



ZEREGIÑAK. Zubikarai tar Augustin.

Idazkaritza eta etxeetarako egokia. Agenda, Dietario eta antzerakoa, baiña euskeraz eta egun bakoitzean, eguneko oar eta gogorabearrekoen zeaztasunentzako lerroak ugari dirala, egun berbereko efemeridesak gogoratzen dira, danak euskaldunak eta Euskalerrinari buruzkoak, egun berezietako oitura, bertso, esaera eta abarrez apainduta.

Era onetan euskeraz agertu dan lenena.



BESTE LIBURU BATZUK

Oraingotan, bizkaiera erabiltzen dabena eta beste euskaldunok, pozik egon
gizonek.

IPUÑAK. Errose Buztintza, "Mañariko".

Pozaren zati bat Mañariko Udaletxeari zor dauzagu. Berari esker
argitalpen txukun bat agertu da. "Kirikiño"ren illoba eta koñata zan Buztintza
tar Errose "Mañariko"ren ipuin atsegiñekaz.

Gaur batu zaleak be euskal pitxien kezkatu agertzen diranez, batura
aldatuta be atara dabez ipuin oneik, baiña jatortasuna eta gatza "Mañariko"
berberaren euskera bizian daukenik ezin ukatu.

Ai, Mañari lako beste euskal erritxoak bide bardiña ikasiko ba lebe,
eskutuan dagozan euren errikideen lanak aizetara astintzen!

•••••

EUSKAL UMEAK ATZERRIAN. Goitia tar Xabier. Labayru'ko "Sutondoan" saillean.

Gerrateko liburu bat, bizkaiera jatorrean. Jaime Kerexetaren orrazia igarten
dala. Egille berberak diño: "Azkenez berbok amaitu baiño leen, neure
eskerrona agertu nai dauzat biotz biotzez Kerexeta'tar Jaime jaunari, nire
lerrook orrazten adu dauan lanagaitik".

Gerratean, euskal umeekaz Euskalerritik urten bear izan eben lan neketsu
ta errukitsuaren gorapen bizia da.

ZAAR-BARRI. Jose Antonjo Oar-Arteta. "Sutondoan" saillean.

Labayru'ren eskutik dator beste liburu au be. Benetan liburu atsegiña, erraz
irakurtekoa. Ezin ukatu Oar-Arteta'k, abade zala, munduko barri asko ikasi
ebanik. Pikardi bizi-bizia berea gertaera eta ipuin askotan. Euskera jatorra
benetan, Markiña-Gernika aldean erabilten dana.

Liburu au erosten dabena, ziur egon, atsedetik ez dabe artuko dana
amaitu arte, eten eziñeko ipuin eta bizitzako gertaeren korda dalako bertan
azaltzen diranena. •

•••••

ESPETXEAN

Liburuen gogorapena egitean, ezin bastertu Sabino Arana Kultur Elkargoak
atara dauan ESPETXEAN bilduma.

Ez da liburu, zeatz esateko, Santoña-Larrinaga-Burgos'ko espetxetan,
1937-1941 bitartean ango espetxeratu eta eriotzera epaituak ataraten zituen
orritxoan bilduma baiño. Bakoitzean iru, lau edo bost iyeki (ale) ataraten zituen.

Orduko giroa ezagutzeko, 1937'ko Lotazilla'ren 25'ko ale baten lenengo
ornan daukan eskeintza irakurri: "Josu, asko da. Asko da, Jauna! Pakea bear
degu. Zerorrek biotz oneko gizonei agindutako pake ori. Biotz onekorik izan
ba da gure erria izan dezu, Jauna. Arren emaiozu ba zure pakea.

Ta au irixteko gere biziak bear balira, ar itzatzu, ta jaso Zugañaño
betikotasunean abes dezagun: "Aintza zeru goietan Jaungoikoari".

Esan bear lau orrialdekoak zirala orduan eskutuan atara eta eskuz idatzita
banatzen ziran orritxuok eta euskera ta erderaz idatzak.

JOXE MIGEL BARANDIARAN (G.B)

Oraindik tinta dariola dagoz Barandiaranidar Joxe Migel'en aintza eta oroimenez egunkari eta bestelako paperetan eta agirietan agertutako dolumiñak.

Oraindik eten barik irrati bidez esan eta zabalduen oiartzunak.

EUSKERAZAIÑTZA'k, nai ta aldizkariaren urteera arte erakutsi ez, biotzean gorde izan dau bere samiña eta naigabea otoitz biurtu.

Eta Joxe Migel zanak Euskalerrriaren aldeko lanetan eundak urte arteko bere bizitza agortu zuan antzera, gu ere Euskalerrriaren ezaugarririk biziena dan euskal izkuntzaren alde, gure biziak irauten duan artean, jokatu eta eskintzeko asmo eta aginduetan geratzen gera.

Lore, aintza, gorespen eta kantuak aztu ego zimeldu egiten dira. Lana da omenik iraunkorrena. Lana da emen erriarekin batera askatu eta goietan alkartuko gaituna.

¡AGERIAN SALATZEN DUGU

1. Latinkeria biurtzeraiño, euskerak gaur jasaten dauan ainbat eta ainbat erdal-itzen eraso zitala, salatzen dugu.
2. Erderaz pentsatuz, euskerara biurtzen dutenen joskera trakets eta ulerteziña, salatzen dugu.
3. Euskerari dakarkioten kaltea ikusi nai ez duten erri-erakundeen eta politika-alderdien ardurarik eza, salatzen dugu.
4. ETBk eta zenbait mezu-bidek, euskal-agintarien esku daudelarik ere, geienetan darabilten euskera ezain eta endekatua, salatzen dugu.
5. Aldizkari ta egunkari geienak ere, gauza beragatik, salatzen ditugu.
6. Erri-erakundeek indarrez jarri diguten erri-euskeratik guztiz urrundutako izkera, salatzen dugu.
7. Erritarrek ulertzen ez duten euskera erabilliz, Bizkai'ko Foru-Aldundiak eta Udalek Bizkai'ko euskerari dakarkioten ondapena, salatzen dugu.
9. Bizkaitar ikasleak beren etxekoa ez dan euskeraz irakatsiak izatea, salatzen dugu.
9. Aboskatzen ez dugun H izkiaz jositako idazkera zentzunbakoa indarrez sartzea, baita ain jatorrak diran Ñ ta LL otsak kentzea ere, salatzen dugu.
10. Bedarona ordez Bedaro, Bilbao - Bilbo, Galdakano - Galdakao, Laukiniz - Laukiz, Lazkano - Lazkao, Lemona - Lemoa, Sopelana - Sopela, Otxandiano - Otxandio, Zestona - Zestoa... eta beste erri ta tokien izen-laburpenak, salatzen ditugu.
11. Euskera zaintzeko ta goraltzeko ardura erabilli bearrean, —ortarako sortua da-ta—, euskera ulergaitza bakarrik aurrera eramateko aalegintzan dan erakundea, salatzen dugu.
12. Euskera zabaltzeko ta irakasteko aspalditik sortu ziran erakunde batzuk euskerari dagozkion arazoetatik baztertuak izatea, salatzen dugu.
13. Azkenez, golan aipatutakoek beraiekin zer-ikusirik ez ba'leukate bezala, ainbat eta ainbat euskotarren euskerarekiko arduragabekeria, salatzen dugu.